ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, URDULIZKO UDALEKU IREKIAK, ABUZTUKO ORDUAK, NEGULEKU IREKIAK ETA ZAINTZA URTEAN ZEHAR ZERBITZUA ANTOLATZEKO ETA GARATZEKO KONTRATATZEKO

EZAUGARRI BEREZIEN KOADROA

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒BAI EZ ☐
Espedientearen izapideak	☐Ohikoa, ☐ Presakoa, ☐ Larri-larria ☒ Aurretikoa
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKL, 159.1 artikulua) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKL, 159.6 artikulua)

A.- ESLEIPEN-AGINTARITZA	
1. Esleipen-agintaritza	URDULIZKO UDALA
2. Kontratazio-organoa	Alkatetza
3. Kontratuaren arduraduna	Euskara saileko arduraduna
4. Helbidea	Elortza plaza 1 – 48610 URDULIZ
5. Helbide elektronikoa	sarrera@urduliz.eus
6. Kontratatzailearen profila	www.urduliz.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1. Zerbitzuaren deskribapena

Kontratu honen helburua da udaleku irekiak (udan eta neguan), atseden orduak (abuztuan) eta zaintza orduak urtean zehar emateko gutxieneko baldintzak ezartzea. Zerbitzu hori, batez ere, eskolako oporraldietan emango da, eremu informalean euskararen erabilera sustatzeko eta familia eta lana uztartzen laguntzeko.

Zerbitzuak emateko eremua Urdulizko udalerria da. Kontratuak honako prestazio hauek barne hartuko lituzke:

a)Udaleku irekiak.
b)Abuztuko atseden orduak
c)Neguleku irekiak
d)Urtean egin beharreko zaintza-orduak.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Programak Baldintza Teknikoen Pleguak aurrez ikusitako gutxienekoak izango ditu.
2. Bete beharreko beharrizanak:
Urdulizko Udaleko Euskera Sailak haur eta gazteentzako hainbat jarduera antolatzen ditu aisialdiaren eta denbora librearen esparruan, naturarekin harremanetan aisialdi dibertigarri eta komunitarioa sustatzeko eta Urdulizko haurren oporraldiez gozatzea errazteko, jarduera guztietan euskararen erabilera indartuz. Horretarako, kontratu hori beharrezkotzat jotzen da administrazio publiko honen kargurako helburu instituzionalak betetzeko, eta udal honek ez du bere plantillan zerbitzu hori betetzeko baliabide pertsonal propiorik. Alde batetik, zerbitzu hori emateko prestakuntza espezifikoa behar denez, beharrezkoa da enpresa espezializatura jotzea; izan ere, enpresa horrek prestakuntza duten langile espezializatuak kontratatzen ditu, eta prestakuntza hori gauzatzeko araudiak eta material espezifikoak ezartzen dute.
3. CPV kodea:
55243000-5 Haurrentzako oporretako udaleku-zerbitzuak
4. Erloak:
Erlokako banaketa: ☐BAI ☒ EZ Erloka ez banatzeko justifikazioa: Lotetan banatzeak kontratua gauzatzeko zailtasuna ekarriko luke, eta ez litzateke eraginkorra izango. Kontratuaren xedearen barruko zerbitzuak modu independentean egiteak zaildu egiten du kontratua ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea, prestazioen gauzatzea koordinatzeko beharra dakarrelako.
5. Aldaeren onargarritasuna:
Onartzeko baldintzak, eta alda daitezkeen edo beste aukera bat izan dezaketen elementuak ☐ BAI ☒ EZ

C.- KONTRATUAREN PREZIOA
1. Lizitazioaren aurrekontua

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Oinarria: 118.342,77 €
BEZ %10 11.834,28 €
Guztira BEZa barne: 130.177,05 €

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aurrekontu hori gutxi gorabehera honela xehatzen da:

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	
LANGILEEN GASTUAK (ZUZENEKOAK)	75.580,25 €
BESTELAKOAK	21.878,49 €
ZEHARKAKO GASTUAK	1.988,97 €
GASTU OROKORRAK ETA MOZKIN INDUSTRIALA	18.895,06 €
ZERGA-OINARRIA	**118.342,77 €**
BEZ (%10)	11.834,28 €
GUZTIRA	**130.177,05 €**

Ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak esleipendunak hitzartutako aldian eta ordutegian prestazioak normaltasunez betetzeko egin behar dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak hartzen ditu barnean, hala nola orokorrak, finantzarioak, mozkinak, aseguruak, joan-etorriak eta lan-denbora, dietak, bere kargura dauden langile teknikoei ordutegietan ordeztutakoak, tasak eta era guztietako deskontuak, eta ezin izango dira esleipen-preziotik aparteko partida gisa jasanarazi; horrela, Udalak ez du inola ere ordainduko aurreko paragrafoan ezarritakoa baino zenbateko handiagoa.

Kontratua gauzatzeko zenbatekoaren gainean, % 13,00 gastu orokorren kontzeptuan eta % 6,00 industria-mozkinaren kontzeptuan hartu da kontuan. Guztizko kopuru horri aplikatutako BEZa % 10ekoa da.

2. Kontratuaren balio zenbatetsia

Kontratuaren balio **zenbatetsia LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (473.371,08 €)** eurokoa da, BEZ kanpo:

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	ZENBATEKOA
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ gabe)	118.342,77 €
Luzapenak	355.028,31 €
Aldatuak	0 €

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

GUZTIRA	473.371,08 €

3. Prezioa zehazteko sistema

Eskaintza ekonomikoa

4. Urtekoak (BEZa barne, BEZaren salbuespena izan ezik), eta aurrekontu-partida aplikatzea

Hona hemen zein diren kontratuaren aurrekontu-urtekoak eta kontratuko gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

Urte	Zenbatekoa	Aurrekontuaren partida
2025	130.177,05 €	000/3351/2260605

5. Prezioak berrikustea

EZ

6. Finantzazioa

Funts berekiak (%100)

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kontura finantzatuko da, 000/3351/2260605 partidaren kargura.

Era berean, aurrekontu-arloan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du etorkizuneko ekitaldien aurrekontuan dagozkion krediduak erreserbatzeko.

Hala ere, kontratua gauzatzeko, kreditu egokia eta nahikoa beharko da dagokion ekitaldian, kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko.

Kontratuaren hasiera hurrengo ekitaldian hasiko denez gauzatzen, dagokion ekitaldian hura finantzatu behar duten baliabideak finkatzea etengo da, SPKLren 117.2 artikuluaren eta hirugarren xedapen gehigarriaren 2. puntuaren babesean.

7. Ordaintzeko modua

Zerbitzua amaitzean ordainduko dira dagozkion zenbatekoak.

Ordainketa legezko epeetan egingo da, fakturek dagozkien teknikarien eta kargu politikoen oniritzia lortzen dutenean.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

D.- IRAUPENA ETA EGIKARITZE-EPEA
1. Iraupen osoa
❖ Udaleku ("txikiak" eta "nagusiak"): 5 aste (2025eko ekainaren 23a - 2025eko uztailaren 25a) ❖ Abuztuko orduak: 2025eko Abuztuaren 4tik 29ra ❖ Neguleku: 2 aste (2025eko abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 3ra) ❖ Zaintza zerbitzua: 2026-02-15ra arte, Udalak eskatzen duenean, helduentzako jarduerak/ekimenak egiteagatik Beraz, prestazioek URTEBETE iraungo dute kontratua sinatzen denetik (2025/02/15etik 2026/02/15era).
2. Epe partzialak
-
3. Luzapenak
Bai, lizitazio honetan jasotako zerbitzuen hasiera- eta amaiera-datak alda daitezke, urteko egutegiaren arabera. Kontratua URTEAN BEHIN luzatu ahal izango da hasierako iraupena amaitzen denean, gehienez ere 3 luzapen gehigarri egin arte (1+1+1). Kontratuaren guztizko iraupena ez da LAU (4) URTETIK gorakoa izango. Kontratazio-organoak erabakiko du ondoz ondoko luzapena egitea, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada. Inola ere ezingo da luzatu alderdien isilbidezko adostasunez.
4. Berme-aldia
Bi hilabete

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

5. Kontratua gauzatzeko lekua
Urduliz

E.- **ESKATUTAKO BERMEAK**
1. Behin-behineko bermea:
Ez da eskatzen.
2. Behin betiko bermea:
Esleipen-zenbatekoaren %5, BEZa kanpo.
3. Berme osagarria:
Ez da eskatzen.

F.- KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA NAHIZ GAITASUN TEKNIKO EDO PROFESIONALA
Zerbitzu-kontratua denez, SPKL, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik behar. Kaudimena egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:
1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa
- Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena: amaitutako azken HIRU urteetatik negozio-bolumen handiena izan duen urteak gutxienez **118.342,77 euro**koa izan beharko du. Hori egiaztatzeko, honela egin beharko da: lizitatzailea edo hautagaia Merkataritza Erregistroan inskribatuta badago, onartutako kontuak aurkeztu beharko ditu, kontuok aurretik erregistro horretan gordailuan utzita; eta erregistro horretan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailuan utzita. - **300.000 euroko** edo hortik gorako lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainen aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria. Zerbitzua amaitzean, harrera-aktari erantsita, poliza ezarritako berme-epean indarrean dagoela eta horri dagokion prima guztiz ordainduta dagoela egiaztatu beharko du. Poliza horretan berariaz aseguratu gisa agertu behar dira esleipendunari eta kontratuan esku hartzen duten langileei egotzi ahal zaizkien zerbitzuak gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak.

2. Kaudimen tekniko edo profesionala

- Kontratu honen xede bereko edo antzeko esparruetan azken HIRU urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrenda, bertan zehaztuta zein diren zenbatekoa eta datak, eta baita zerbitzuen hartzailea publikoa edo pribatua izan den adierazita ere. Hiru urte horietako gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa, gutxienez, **94.674 euro**koa izango da.

  Egindako zerbitzuak honela egiaztatuko dira: lanen hartzaileak sektore publikoko entitate bat denean, organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek emandako ziurtagiri bidez, edo horrelakorik ez badago, enpresaburuaren aitorpen bidez.

Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Baldin eta kontratista enpresa sortuberri bat bada —halakotzat hartzen dira bost urtetik beherako antzinatasuna dutenak—, atal honetako kaudimen teknikoa honako bide hauetako edozein erabiliz (bat edo batzuk) egiaztatu ahal izango da:

- Enpresaren barruan edo kanpoan, teknikariak edo unitate teknikoak adieraziko dira, kontratuan parte hartu behar badute. Bereziki kalitatea kontrolatzearen arduradunak aipatuko dira.
- Instalazio teknikoen deskribapena, eta enpresaburuak zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna bermatzeko erabiliko dituen neurrien deskribapena.
- Enpresaburuaren nahiz enpresako zuzendarien titulu akademikoak eta profesionalak eta, bereziki, kontratua gauzatzez arduratuko denarenak edo direnarenak, baita zuzenean ardura izango duten teknikarienak ere, betiere adjudikazio irizpide modura ebaluatzen ez badira.
- Urdulizko Udalaren aurrean ordezkaritza-funtzioa beteko duten pertsona edo pertsonen azalpena, administrazio-baldintzen eta preskripzio teknikoen pleguan zehaztutako betebeharren arabera jardutea edo bertan egotea beharrezkoa denean. Gauza bera gertatuko da kontratu-betebeharrak betetzeko bestelako egintzetan, betiere zerbitzuak gauzatzeko edo behar bezala garatzeko badira.

G. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Fitxategi elektronikoa. 1 zenbakidun gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa

- Kontratazio-agiri europar bakarra (KAEB)
- Enpresaburuen aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. **(I. ERANSKINA)**
- Erantzukizunpeko adierazpena, non azaltzen den kontratua egikaritzeko agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian azaldutako zehaztapen eta profilak dituzten giza baliabideak eta bitarteko materialak atxikiko direla. Horrez gain, kontratuaren xede den jarduera egiteko langileei aplikatuko zaien hitzarmen edo akordio kolektiboa

aitortuko da, eta kaudimen-eskakizunak betetzen direla azaldu ere bai.Gaitutako helbide elektroniko bat, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat. Helbide horretan egingo dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. Gutxienez 300.000 € euroko berme-muga duen erantzukizun zibileko asegurua eratzeko konpromisoa Zinpeko adierazpen bakarra aurkeztu behar da eskatutakoa betetzen dela azaltzeko, **III. ERANSKIN**ari jarraikiz. - Bidezkoa bada, lizitatzaile atzerritarrek aurkeztu behar duten dokumentazioan berezitasunak. - Bidezkoa bada, konfidentzialtasunaren adierazpena agiri honetako 5.2.5 klausulak azaldutako baldintzetan.
2. Fitxategi elektronikoa. 2 zenbakidun gutun-azala: Balio-iritzipeko irizpideei buruzko dokumentazioa.
- Balio-iritzipeko irizpideei buruzko dokumentazioa, ezaugarrien taulako J.1 atalean aurreikusitakoarekin bat.
3. Fitxategi elektronikoa. 3 zenbakidun gutun-azala: Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa
- Proposamen ekonomikoa:**II. ERANSKIN**AREN arabera aurkeztuko da.

H. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA
1. Eskaintzak aurkezteko epea
HOGEITA HAMAR EGUN (30) egun natural, lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
2. Lekua
Bitarteko elektronikoak, Biscaytik lizitazio-plataformaren bidez.
3. Eskaintzen aurkezpen elektronikoa
☒BAI ☐EZ Proposamenak horretarako gaitutako helbide elektronikoan aurkeztu beharko dira (https://egoitza.garapena.biscaytik.eus/kontratazioa/licitacion/oferta/asistenteInscripcion?numexpediente=B089-2024-00013), dagokion lizitazio-iragarkian zehaztutako epean eta ordua baino lehen. Eskaintzak sinatuta egon beharko du, onartutako izenpe elektronikoa erabiliz, eta izenpe hori konfidantzazko zerbitzu elektronikoak ematen dituen erakunde batek (plataformak onartzen duen erakunde batek) emana izan beharko du. Izenpe elektronikoak honako hauek bermatuko ditu: sinatzailearen nortasuna, dokumentuaren osotasuna, eskaintza eta eskaintzari lotutako dokumentu guztiak. Hori guztia, betiere, bat eginda azaroaren 11ko

6/2020 Legearekin; lege horrek arautzen ditu, batetik, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk, eta, bestetik, kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenak.

Enpresa lizitatzaileek horretarako gaitutako internet-helbidetik eskuratu ahal izango dute gutun-azal digitalaren zerbitzua. Helbide honetatik, eskaintza prestatu eta aurkezteko web inprimakietara sar daiteke. Proposamena bidaltzeko, onartutako ziurtatze-erakunde batek emandako ziurtagiri digitalarekin sinatu beharko da eskaintza.

Une horretan, nabigatzailetik, baina lizitatzailearen ordenagailutik bertatik, eskaintza jatorrian zifratuko da, lizitazio-plataformara kanal seguru baten bidez bidaliko da eta biltegi seguruan gordeko da. Bertan, behar diren sarbide-eskubideekin bakarrik berreskuratu ahal izateko moduan gordeko da. Sarbide-eskubide horiek izendatutako zaintzaileek baino ez dituzte, eta ezarritako irekitze-unea iristen denean baliozkotu beharko dute beren nortasuna.

Edozein arrazoirengatik enpresa lizitatzaileak ezin badu eskaintza igorri, bi fasetan igorri ahalko du eskaintza:

Lehenengo fasean, enpresa lizitatzaileek helbide elektronikoz (**sarrera@urduliz.eus**) aurkeztu ahal izango dute eskaintzaren lorratz digitala, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barruan igortzen bada. «Hash» edo lorratz elektronikotzat hartzen da eskaintzari berari berariaz lotuta sortzen diren datuen multzoa. Horiei esker, eskaintzan aldaketarik izan den antzeman daiteke, aztarna horrek ahalbidetzen baitu edukiak ez duela aldaketarik izan lizitatzaileak bidali duen unetik aurrera. " Lizitatzaileek gaitutako helbide elektronikora (**sarrera@urduliz.eus**) bidali beharko dute eskaintzaren “hash” delakoa edo lorratz elektronikoa, transkribaturik (ez irudi bidez), espedientearen zenbakia eta lizitatzailearen identifikazio-datuak adierazita; kontratazio-mahaiak, horrela, lorratza igorri ostean, egiaztatu ahal izango du lorratz digital hori eta aurkeztutako eskaintzaren lorratza bat datozela.

Bigarren fasean, eskaintza bera bidali beharko dute, eta, horretarako, lizitazio elektronikorako gaitutako ohiko mekanismoa erabili beharko da, gehienez ere lorratz digitala igortzen denetik 24 orduko epearen barruan. Bigarren bidalketa hori zehaztutako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu dela ulertuko da.

Eskaintza baten edukia irakurri ezin bada fitxategiak kalterik daukalako, enpresa lizitatzailearen ekipoan era automatikoan sorturiko kopia baliatu ahalko da, eskaintzaren lorratz digitala eta kontratazio-organoak gorderik daukan lorratza bat datozela egiaztatuta.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona edozein dela ere, enpresa edo entitatearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatu beharko du eskaintza elektronikoa. Beraz, bi aukera eskaintzen dira:

1) Eskaintza osoa elektronikoki sinatzen da, enpresa edo erakundeko ahaldunaren/ahaldunen ziurtagiriarekin, eta horrek balioa ematen dio aplikazioaren inprimakietan sartutako informazioari.

2) Edo, bestela, ziurtagiri digitala duen pertsona batek eskaintza bidaltzen du, eta eskaintzaren

eskaintza elektronikoa osatzen duten dokumentu elektronikoak eransten dira, enpresa edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuta.

I.- KONTRATAZIO MAHAIA
Mahaiburua
Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa
Mahaikideak
Udaleko arkitektoa edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa Udalaren behin-behineko kontu-hartzailea edo hark eskuordetutako funtzionarioa Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia edo hark eskuordetutako funtzionarioa
Idazkaria
Urdulizko Udaleko administrazio bereziko teknikaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa

J. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
1. Esleitzeko irizpideak
1.1 Irizpide subjektiboak edo formula matematikoen bitartez baloratu ezin direnak (fitxategi elektronikoa, 2 zk.dun gutun-azala) GEHIENEZ, BERROGEI (40) PUNTU
<u>1.- Memoria teknikoa (gehienez 40 puntu)</u> Honako alderdi hauek lantzen dituen memoria edo proiektu teknikoa: ▪ Programaren helburu orokorrak, gauzatuko diren jardueren helburu zehatzak: **<u>gehienez 15 puntu</u>** ❖ Proiektuaren egitura, argitasuna eta edukia baloratuko dira: proposatutako interesgunean oinarrituta, haren erakargarritasuna, berrikuntza eta jardueren eta irteeren egokitasuna kontuan hartuta.

- Proposatutako ekintzak haurrentzako interesgarriak, erakargarriak eta kutsu didaktikoa izatea. Aktibitate bakoitza aukeratu izanaren zergatia azaldu beharko da baita lantzen diren materiak eta helburua ere. Horretaz aparte, jorratuko diren aktibitateak kutsu historikoa, kulturala eta Euskararekin nolabaiteko harremana duten kontuan hartuko da.

- Metodologia: **gehienez 15 puntu**
  - Jarduera programa zehatza (esleitutako instalazioetan eta irteeretan)
  - Ekintza bakoitzaren garapena, ordutik ordura zehaztuta
  - Eguraldi txarra eginez gero, planteatutako txango/jarduera alternatiboak
  - Antolaketa orokorra: barne- eta kanpo-koordinaziorako sistemak, haurrekin eta familiekin erabili beharreko metodologia, gurasoei arreta emateko proposamena, udalarekin koordinatzeko proposamena, ezustekoak, arazoak eta abar konpontzeko metodologia.
  - Ebaluaketa sistema
  - Taldeak antolatzeko metodologia (datuen kudeaketa, zozketak, taldeak…)
- Baliabide materialak eta giza baliabideak **gehienez 5 puntu**
  - Zerbitzuari atxikiko zaizkien langileen konfigurazio zehatza, agirietan ezarrita behinik behin beteta. Esleipenaren ostean, begiraleen zerrenda erreala aurkeztuko du enpresa esleipendunak, zein bere curriculuma erantsita.
  - Baliabide materialen zerrenda
- Ume eta gazteen artean euskara sustatzeko plangintza aurkeztea. Begiraleak eta antolatzaileak hizkuntzaren erabileran eredu diren aldetik, umeak elkarren artean euskara gehiago erabiltzeko plangintza aurkeztu beharko da.; **gehienez 5 puntu.**

Dokumentazioa entregatzeko baldintzak:

- ✓ Formatua: PDF
- ✓ Iturri-mota: Arial.
- ✓ Letra-tipoaren tamaina: 10.
- ✓ Marjinak (goikoa, behekoa, eskuinekoa eta ezkerrekoa): gutxienez 3 cm.
- ✓ Lerroartea: bakuna.
- ✓ Gehieneko luzapena: 30 orrialde A4 alde batera orrikatuta (azala, aurkibidea eta

eranskinak ez dira sartu) Ez da kontuan hartuko luzapen hori gainditzen duen edozein folio edo dokumentu. Enpresa lizitatzaileak kontuan izan beharko du objektiboki ebalua daitezkeen irizpideei erreferentzia egiten dien dokumentazio edo informazio guztia ezin izango dela proiektuan eta memoria teknikoetan sartu. Hala eginez gero, garrantziaren arabera, eskaintza baztertzea edo memorian informazioa sartu duten alderdiak 3. artxibo elektronikoan ez baloratzea erabakiko da.
1.2 Irizpide objektiboak edo formula matematikoen bitartez balora daitezkeenak (fitxategi elektronikoa, 3 zk.dun gutun-azala) GEHIENEZ HIRUROGEI (60) PUNTU
1.2.1 Proposamen ekonomikoa: gehienez 55 puntu
Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoa gauzatzeko eskainitako prezioa: 45 puntu gehienez (3. artxibo elektronikoan sartu beharrekoa). Eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresak (diru aldetik baxuena) gehienez ere BERROGEITA HAMABOST (55) PUNTU lortuko ditu, eta gainerako enpresek puntuazio proportzionala lortuko dute, honako formula honen bidez zehaztuko dena: Puntuazioa = 55 x eskaintza ekonomiko merkeena / Kasuan kasuko eskaintzaren prezioa Oharra: Balorazioan ez da BEZa kontuan hartuko. Emaitza 2 hamartarretara biribilduko da.
1.2.2. Lehen sorospenetan tituludun monitoreak: 5 puntu
Zerbitzuari lehen sorospenetan tituludun monitoreak atxikitzeko konpromisoa: - Begirale 1 lehen sorospenetan: puntu 1 - 2 monitore lehen sorospenetan: 3 puntu - 3 monitore lehen sorospenetan: 5 puntu
2. Berdinketa hausteko irizpideak:
Eskaintzen artean berdinketa gertatzen denean, hausteko irizpide modura Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 147.2 artikuluak xedatutakoa aplikatuko da.
3. Ohiz kanpo beheratutako eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak
Eskaintza ohiz kanpo beheratutzat edo proportzioz kanpokotzat joko da, eskaintza ekonomikoen batez besteko aritmetikoarekiko (prezioa) % 20tik gora jaitsi bada.

4. Hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko lizitatzaileari eskatzen zaion gutxieneko puntuen atalasea
Formula matematikoen bidez balora ezin daitezkeen irizpide subjektiboak baloratzean 22 puntu edo hortik gora lortu beharko dira hurrengo fasera (3. Artxibo elektronikoa irekitzea) pasatzeko.

K. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau betetzeko honako baldintza berezi hauek exijituko dira gizarte, lan, etika, ingurumen eta bestelako gaietan:

1. Lan-eskubideak.
2. Hizkuntza.
3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako baldintzak.
4. Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako baldintzak.
5. Datuak babestearekin lotutako baldintzak.
6. Jabetza intelektualarekin edo industrialarekin lotutako baldintzak.
7. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak

1.- Lan-eskubideen arloan

Kontratua gauzatzean, esleipendunak bermatu behar du oinarrizko lan-eskubideak errespetatuko dituela ekoizpen-kate osoan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak betetzeko eskatuz, besteak beste, askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak, bortxazko edo nahitaezko lana desagerraraztea, enpleguari eta okupazioari buruzko diskriminazioa desagerraraztea arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo haur-lanaren abolizioari buruzkoak".

2.-Hizkuntza-arloan

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarritako eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubideari lotuta dago, bai eta hura garatzen duen legeriari, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak garatzen duen Legeari, bai eta Urdulizko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2018-2020 Planari.

3.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-arloko baldintzak

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, neurriak ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko arlo hauetan guztietan: enplegua eskuratzea, sailkapen pertsonala, sustapena, iraunkortasun, prestakuntza, ordainsariak, lan-kalitatea eta -

egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua, bai eta kontratuari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen duten neurriak ere, betiere martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen III. Berdintasun Planak eta mankomunitatea osatzen duten zazpi udalen planek diotenari jarraiki.

Emakumeen eta Gizonen Ordezkaritza Parekideari eta Presentzia Orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, eta, ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legera lekualdatzea, 71.1 artikuluaren d) idatz-zatiaren lehen lerrokada aldatuta:

Lege honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin ezin izango dute kontraturik egin honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonek:

«*d) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, erregelamenduz zehaztutako moduan; edo 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, enplegatuen ehuneko 2 gutxienez desgaitasuna duten langileak izateko baldintza ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluaren arabera, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan; edo 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzea, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta dagokion lan-erregistroan inskribatu beharko dute (...)».*

<u>Idazketa berri horretatik ondorioztatzen denez, kontratatzeko debekuaren arrazoien artean sartzen da, berdintasun-planik ez izatea ez ezik, berdintasun-plana dagokion erregistroan inskribatuta ez egotea ere.</u>

<u>Beraz, berdintasun-planak dagokien lan-erregistroan inskribatu behar dituztenez 50 langile edo gehiagoko enpresa guztiek, inskribatu ez badute, enpresa horiek ezin izango dute sektore publikoarekin kontraturik egin.</u>

Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate-euskarri, irudi edo material guztietan, eta saihestu egin beharko ditu emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatu beharko du.

4.- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko baldintzak

Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita hitzarmen kolektibo aplikagarriaren ondoriozkoak ere.

Enpresa kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurriak hartu beharko ditu, nahitaezkoak edo beharrezkoak, kontratuaren xedearen eraginpeko langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrotz prebenitzeko.

Kontratuaren xedearen izaerak kontratistaren langileek (edo, bidezkoa bada, azpikontratistarenek) administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazio baten bidez esku hartzeko eskatzen duenean, eta zentro horietan administrazioaren
beraren langileek zerbitzuak ematen dituztenean, jarduera hasi baino lehen, enpresa eta langile autonomo guztiek elkarren artean elkarlanean jardun eta informazioa trukatuko dute garatzen dituzten jardueren berariazko arriskuei buruz, baldin eta beste enpresa batzuetako langileei eragiten badizkiete.

Enpresek euren langileei jakinaraziko diete jarduerak batera egiteak dakartzan arriskuak zein diren, eta beharrezko koordinazio-bitarteko egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da laneko arriskuen ebaluazioan eta dagokion prebentzio-jardueren plangintzan.

5.- Datuak babestearekin lotutako baldintzak.

Datuak babesteko indarreko araudian xedatutakoaren arabera, zure datuak tratatzearen arduraduna Urdulizko Udala (aurrerantzean, arduraduna) da.

Arduraduna legitimatuta dago lizitatzaileek ematen dizkioten datuak tratatzeko, betiere lizitazio honetan parte hartzeko badira. Helburuak:

a) Lizitazioan lizitatzaileen partaidetza kudeatzea. Tratamendua legitimatzeko lizitatzaileek balioz baimenduko dute hautagaitzak aurkezten dituzten unean.
b) Alderdien artean sortzen den harreman juridikoa kontrolatu eta gauzatzeko esleipendunaren datuak erabiliko dira. Kontratuko zerbitzuak nola eman arautzen duen kontratua gauzatzearen ondorioz, legitimatu egiten da tratamendua.
c) Lizitatzaileen eta esleipendunen datuak argitaratuko dira Udalak egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez, bereziki, administrazio honen webgunearen bitartez, besteak beste, kontratazioei eta hornitzaileei buruzko informazioa baitu. Helburu hori SPKLk baimentzen du.

Datu pertsonalak harremanak dirauen bitartean bakarrik tratatu eta kontserbatuko dira, eta amaitutakoan, indarreko legediak xedatzen dituen epeak kontuan hartuta, arduraduna tratatzeko eta/edo kontserbatzeko legitimatuta dagoen bitartean.
Tratatzeko jaso diren datu pertsonalei dagokienez, lizitatzaileek sartu, zuzendu, ezabatu eta eramateko eskubideak erabili ahalko dituzte. Era berean, inguruabar zehatzetan, lizitatzaileek euren datuen tratamendua mugatzeko edo haren kontra egiteko eska dezakete. Halakoetan, arduradunak tratatzeari utziko dio eta erreklamazioak defendatzeko baino ez ditu gordeko.

Eskubideak erabiltzeko, idatziz eskatu ahal izango zaio arduradunari ezaugarrien taulan adierazitako harremanetarako datuen bitartez, indarreko legediak xedatzen duen baldintzetan. Era berean, edozein erreklamazio arduradunari edo Datuak Babesteko Euskal Agentziari berdin zuzen dakioke xede horrez erakunde honek egokitu duen inprimakiaren bidez honako web orri honetan: https://www.avpd.euskadi.eus.

Zerbitzuak egiteko, Udala arduradun den datu pertsonaletara sartu behar bada, datuak babesteko araudiak xedatzen duenerako, esleipenduna tratamenduaren eragilea izango da. Behar izanez gero, kontratu bat formalizatu beharko da tratamenduaren baldintzak arautze aldera eta, gutxienez, honako alderdi hauek landuko ditu:

a) Datuak beren-beregi Udalak ematen dizkion argibide dokumentatuekin bat etorriz tratatzeko konpromisoa, eta esleipendunaren iritziz, datuak babesteko araudia urratzen duen edozein azalpen Udalari jakinaraziko dio. Halaber, Udalak ematen dizkion argibideak tratamenduaren eragileordeek beteko dituzte, eta datuak nazioartean transferitzeko aurretiaz Udalak baimenduko du.
b) Esleipendunak tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten baditu, arduraduntzat joko da, eta datuak babesteko araudiak xedatzen dituen legezko erantzukizunak beteko ditu.
c) DBAOren 32. artikuluak xedatutakoa bete dadin, arriskuarekiko segurtasun-maila egokia bermatzeko aproposak diren neurri teknikoak eta antolakuntzari buruzkoak aplikatu eta eguneratzeko konpromisoa, hori guztia teknikaren egoera, aplikatzearen kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak ere kontuan hartuta.
d) Datuak Babesteko Araudi Orokorrak (aurrerantzean, DBAO) eta Lege Organikoak ezartzen dituzten eskakizunak betetzen direla frogatzeko informazio guztia Udalaren esku jartzea. Ildo horri eutsiz, Udalak berak edo hark baimendutako beste ikuskatzaile batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetu eta laguntzeko konpromisoa eta beharra du.
e) Agiriko tratamenduen eragiketak egiteko DBAOren 35. artikuluko eragina ebaluatu behar bada, esleipendunak konpromisoa hartzen du Udalari aurretiazko kontsulta eta eraginaren ebaluazioak egin eta mantentze aldera.
f) Behar ez bezala luzatu gabe Udalari jakinaraziko zaizkio bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasuna urratu denean, ezagutu bezain laster, eta gorabehera dokumentatu eta jakinarazteko informazio adierazgarri guztia erantsiko dio.
g) Tratamenduaren jarduera-erregistroa mantenduko du, DBAOren 30.5 artikuluak aurrez ikusitako salbuespena aplikagarria denean izan ezik.
h) Udalak hala hautatzen badu, zerbitzuak egiten amaitzen denean, esleipendunak honako betebehar hauek ditu:
    - datu pertsonal guztiak eta haien kopiak ezabatzea, lege-arauren batek kontserbatu behar direla hizpatzen ez badu. Halakoetan, ez dira datu pertsonalak ezabatuko edo
    - datu pertsonal guztiak itzuliko dira tratamenduaren zerbitzuak amaitzen direnean eta egin izan diren kopiak ezabatu ere bai.

Ezaugarrien taulan hala adieraziz gero, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiaren (datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari buruz pertsona fisikoak babesten ditu eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du) 282 artikuluak xedatutakoaren kalterik gabe, kontratuetan kontratistak tratamenduaren arduradunaren karguko datu pertsonalak tratatu behar baditu, gainera, agirian honako hauek gelditukо dira idatziz jasota:

a) Datuak zer helbururekin lagako diren.
b) Etorkizuneko kontratistak nahitaez bete beharko ditu datuak babesteari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko arauak, SPKLren 202. artikuluko 1. idatz-zatiko azken paragrafoan xedatutakoa gorabehera.
c) Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu beharko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duena.
d) Aurreko c) letran aipatu den adierazpenean emandako informazioan oinarrituta, kontratuaren bizitzan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra.
e) Lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute zerbitzariak edo zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten ala ez, eta zerbitzuaren prestazioa eskatuko zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta.

Nolanahi ere, a) letratik e) letrara ageri diren eskakizunak funtsean bete beharko dira SPKLren 211. artikuluko 1. idatz-zatiaren f) letrak aurrez ikusten duenerako.
Kontratistak datuak babestearekin lotutako Estatuko eta Europar Batasuneko araudiak bete beharko ditu eta hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da (SPKLren 211.1.f)).

6.- Jabetza intelektualarekin edo industrialarekin lotutako baldintzak.

Beren-beregi Udalaren titulartasunekoak izango dira agiri honen xede diren emaitzak eta jabetza industrial eta intelektualaren eskubide guztiak, baldin eta kontratua egikaritzean sortzen badira. Eskubide horien barruan sartuta egongo dira indarraldiko eguneratzeak, aldaketak, dokumentazioa, eskuliburuak, etab.

Jabetza intelektualaren pean babes daitezkeen obrei dagokienez, esleipendunak obren gaineko eskubide guztiak, erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketaren eskubideak barne, beren-beregi laga beharko ditu inolako mugarik gabe, kontratua sinatzen denean ezagunak diren ustiapen-modalitate guztietarako. Ordain ekonomiko osagarririk gabe, legez luza daitekeen gehieneko denboraz izango da, eta mundu-mailan izango du eraginkortasuna. Kontratuaren esparruan programa informatikoak sortu edo garatzen badira, prestazioa amaitutakoan edo, bidezkoa bada, kontratua alderdiren batek azkentzen duenean, esleipendunak softwarearen iturriari dagokion kodea entregatuko du.

Jabetza industrialaren eskubideen kasuan, titulartasuna esklusiboa da eta edozein eremutan ustiatu eta jabetza industrialaren edozein bulegotan erregistratu ahalko dira. Mundu-mailan

egin ahal izango da, legez luza daitekeen gehieneko denboraz.

Esleipenduna kontratua gauzatzeko behar diren jabetza intelektual eta industrialaren eskubideen titular izango da edo ustiapen-eskubideak dituenaren baimena eskuratuko du. Inguruabar hori kontratuaren indarraldiko edozein unetan Udalak egiazta dezake. Horrela, jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideen titularrek agiri honen xede den kontratua egikaritzeko erabiltzen diren hornidura, material, prozedura edo bitartekoei dagokienez, erreklamaziorik egiten badute, esleipendunak hirugarrenen aurrean Udala edozein erantzukizunez salbuetsiko du.

7.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, parte hartzen duten enpresek lan-arriskuen prebentzioaren arloan dituzten betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko, parte hartzen duten jarduerak (kontratak edo azpikontratak) hasi aurretik kontrola egiteko legezko betebeharra ezartzen da:

Parte hartzen duten enpresei eskatzen zaie, lanei ekin aurretik, honako agiri hauek aurkez ditzatela:

1. Egin beharreko obra edo zerbitzuetan dauden langileen izenen zerrenda.

2. Laneko arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.

3. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko antolamendu-modalitatea egiaztatzen duen agiria.

4. LAPeko langileentzako informazioa eta prestakuntza egiaztatzen duen dokumentua (LAPLren 18. eta 19. artikuluak)

5. Prestakuntza espezifikoaren ziurtagiria, honako hauen arabera: zereginak, altuera, espazio konfinatuak, plataformen erabilera, lan elektrikoak...

6. Egin beharreko obra edo zerbitzuetan dauden lan-kontratuko langileen azken urteko gaitasun medikoaren ziurtagiria.

7. Egin beharreko obra edo zerbitzuetarako behar diren norbera babesteko ekipamenduak entregatu direla egiaztatzen duen agiria.

8. Erabiliko diren lantaldeen zerrenda eta horien egoera, aplikatzekoa den legeriarekiko.

9. Hala badagokio, erabiliko diren produktu kimikoen zerrenda, produktu horien segurtasun-datuen fitxarekin batera.

10. Prebentzio-baliabidea erabiliko duen pertsonaren izendapen-akta eta prebentzio-baliabide horren prestakuntza egiaztatzen duen agiria.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

11. Erantzukizun zibileko asegurua (ordainagiria).

12. Azpikontratatu beharreko lanak eta, hala badagokio, azpikontratatu diren azpikontraten eta jardueren izenak. (Kasu horretan, azpikontrataren dokumentazioa aurkeztu beharko da)

13. Ezarritako prebentzio-modalitatea, kontratatutako espezialitateak adierazita (osasuna zaintzeko ituna) eta ordainagiria.

L. BERARIAZKO ZEHAPENAK

Ez daude.

M. ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO ASEGURUA

Lanbide-arriskuak direla eta, esleipendunak, gutxienez, 300.000 euroko erantzukizun zibilaren asegurua izan beharko du.

N. KONTRATUA ALDATZEA

Ez dago aldaketarik.

Ñ.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- Azpikontratatzeko asmorik dagoen adieraziko da, zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila azaldu gabe: 1. fitxategi elektroniko-gutun-azalean.
- Azpikontratatzeko mugak. SPKLk aurrez ikusitakoak.

O.- SUBROGAZIOA

- IV.Eranskinean

P.- INFORMAZIO GEHIGARRIA EDO OSAGARRIA

SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio gehigarria edo osagarria ematea beharrezkoa denean, administrazio kontratatzaileak eman egin beharko du, gehienez ere

eskaintzak aurkezteko finkatutako mugaeguna baino 5 egun naturaleko epearen barruan, betiere eskaria, gutxienez, data horren aurretik 7 egun natural lehenago aurkeztu bada.

Q.- ERREKURTSOEN ARAUBIDEA	
BAI	Kontratu honen aurka, kontratazio-mailako errekurtso berezia jar daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoetarako Administrazio Organoaren aurrean, 15 egun balioduneko epearen barruan. Esleipenaren aurkako errekurtsoa aurkezten bada, egintza hau etenda geratuko da berez.
BAI	Kontratu honen aurka, errekurtso arrunta jarri ahalko da organo honen aurrean: Alkatetza
BAI	Aukerako berraztertzeko errekurtsoa.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, URDULIZKO UDALEKU IREKIAK, ABUZTUKO ORDUAK, NEGULEKU IREKIAK ETA ZAINTZA URTEAN ZEHAR ZERBITZUA ANTOLATZEKO ETA GARATZEKO KONTRATATZEKO

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. XEDEA ETA LOTEAK

Kontratu honi dagokion ezaugarrien taulak (aurrerantzean, ezaugarrien taula) B.1) atalean kontratatu nahi diren obra batzuk ditu, eta agiri honen xedea da ikuspegi juridiko, administratibo eta ekonomikotik kontratazio hori arautuko duten eskubideak eta betebeharrak ituntzea eta baldintzak ezartzea.

Kontratu honen eginkizunak preskripzio teknikoen agirian eta ezaugarrien taulako B.2) atalean ageri dira.

"Kontratua loteka banatuta badago, lizitatzaileek lote bat, batzuk edo guztiak aukera ditzakete, eta baten, batzuen edo guztien esleipendun izan daitezke; parte hartzeari eta/edo esleitzeari begira, lizitatzaile bakoitzeko gehieneko kopurua zehazten denean izan ezik. Xede horrez, ezaugarrien taulak B.4) atalean hizpatutakoari erreparatuko zaio."

Aldaerei eutsiz, ezaugarrien taulako B.5) atalean xedatutakoa aintzat hartuko da.

1.2. CPV

CPV eta NACE kodea agiri honi erantsitako ezaugarrien taulako B.3) atalean aipatzen da.

1.3. KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratu honen iraupena ezaugarrien taulako D.1) atalean azaltzen da.

Ezaugarrien taulako D.2) atalak ezartzen ditu kontratuaren iraunaldia eta, hala badagokio, finka daitezkeen epe partzialak; bestela, kontratua esleitzen denean esleipendunak bere eskaintzan ezarritakoa beteko da. Iraunaldia kontratu formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da; edo, bestela, prozedura ireki super sinplifikatuan, esleipen-jakinarazpena onartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, Ezaugarrien Taulako D.2) atalean, kontratuaren hasiera-data zehatza adierazi ahal izango da, eta inguruabar hori espedientean jaso beharko da.

1.4. KONTRATUA GAUZATZEKO TOKIA

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Kontratua ezaugarrien taulak D.5) atalean adierazitako tokian gauzatuko da.

2. IZAERA JURIDIKOA ETA LEGE-ARAUBIDEA

Esleipen-erakundea Urdulizko Udala da. Erakunde horrek tokiko administrazioaren nortasun juridiko publikoa du.

Era berean, kontratu hau, xedea kontuan hartuta, administratiboa da.

Definitutako kontratua zerbitzu-kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EE eta 2014/24/EE Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora) 13. artikuluari jarraikiz.

Kontratua arautzeko erabiliko dira agiri hau (kontratuaren legea eta bi alderdientzako loteslea), preskripzio teknikoen agiria eta, horiek aurrez ikusten ez dutenerako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EE eta 2014/24/EE Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL); eta gainerako araudi aplikagarria.

Agiri honek, preskripzio teknikoen agiriak eta kontratuko ezaugarrien taulak, eranskinek eta gehitutako gainerako dokumentuek kontratu-izaera izango dute.

Agiri hau eta kontratuko gainerako edozein dokumentu bat ez badatoz, nagusi izango da agiria. Era berean, kontratu-izaera dute kontratuaren esleipendunaren eskaintza teknikoak eta ekonomikoak eta, bidezkoa bada, kontratua formalizatzen duen dokumentuak.

Itundutako obra egikaritzean edozein baldintzatan kontratuaren klausulak, kontratuaren beste dokumentu batzuenak eta aplikatu behar zaizkion jarraibideak edo araudia ezagutzen ez badira, esleipendunak horiek guztiak bete beharko ditu.

Ezaugarrien taulako C.6) atalean xedatutakoarekin bat etorriz, kontratu hau kanpotik finantzatzen bada, kontratazioa Ituneko xedapenen eta hartan finkatutako egintzen mende geldituko da, eta dagokion araudiari erreparatuko dio.

Zerbitzuaren kontratazioa esleituko da prozedura irekiaren bidez erregulazio harmonizatuaren eta ez-harmonizatuaren arabera (SPKLren 156. art.), prozedura ireki sinplifikatuaren bitartez (SPKLren 159. art.) edo super sinplifikatuaren bidez (SPKLren 159.6. art.), ezaugarrien taulan adierazten denaren ildotik.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA, KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

3.1. KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa ezaugarrien taulako A.1 atalean identifikatuko da.

3.2. KONTRATUAREN ARDURADUNA

SPKLren 62. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, kontratuaren arduraduna ezaugarrien taulako A.3) atalean identifikatuko da. Kontratua gainbegiratzeko eginkizunak betetzen dituena kontratuaren arduraduna izango da.

Arduradun horrek etengabe eta zuzenean kontratua koordinatu, ikuskatu, kontrolatu eta jarraituko du, eta itundu den prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko jarraibideak emango ditu.

Xede horiez, kontratua egikaritzen ari den bitartean, kontratuaren arduradunak beharrezkotzat jotzen duen guztietan ikuskatu ahalko ditu zerbitzuak, eta lanak behar bezala kontrolatzeko egokitzat jotzen duen informazioa eskatuko du. Helburu hori betetze aldera, kontratuaren arduradunak eta bere laguntzaileek kontratua gauzatzen den tokia nahi dutenean bisitatu ahal izango dute Kontratistak, kostu gehiagorik gabe, Udalaren lanbide-laguntza emango dio kontratatutako prestazioa aprobetxatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion azalpen- edo informazio-bileretan. Kontratistak eskatzen zaizkion dokumentazio eta zehaztapenak aurkeztuko ditu, kontratua egikaritzean kontratuaren arduradunak hala eskatuz gero. Kontratistaren edo bere mendeko pertsonen egintzak edo ez-egiteak direla bide kontratuaren abiada ona arriskuan jarri edo eragozten denean, kontratuaren arduradunak eska dezake neurri zehatzak hartzeko. Helburua da itundu den lanaren ordena ona lortu edo berreskuratzea.

Kontratistak kontratuaren arduradunarekin ezinbestez elkarlanean jardungo du lehenengoari emandako eskakizunak ohiz betetzeko.

Kontratuaren arduradunak, zerbitzuen zuzendaritza egiteko, kontrolatzeko, egiaztatzeko eta behar bezala egiten direla zaintzeko zereginean, kontratistarekiko, bere gain hartuko ditu behar diren eginkizun guztiak, eta berariaz honako hauek:

- ✓ Kontratistari eskatzea, zuzenean edo bere agindupeko langileen bidez, kontratuko baldintzak bete ditzan.
- ✓ Zerbitzuak eskaintzari edo behar bezala onetsi diren aldaketei zorrozki erreparatuta eta lan-programa beteta egikaritzen direla bermatzea.
- ✓ Preskripzio teknikoen agiriak bere erabakiaren mende uzten dituen baldintza teknikoak definitzea.
- ✓ Interpretazioari dagokionez, sortzen diren gai tekniko guztiak ebaztea, baldin eta kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira.
- ✓ Planteatutako gorabeherak edo arazoak aztertzea, kontratua ohiz betetzea uzten ez badute edo aldatzea gomendagarria bada. Bidezkoa izanez gero, dagozkion proposamenak izapidetuko ditu.

- ✓ Erakundeek eta partikularrek baimenak emateko jarduketak proposatzea, baimen horiek zerbitzuak egikaritzeko beharrezkoak badira, eta baimenekin zerikusia duten arazoak ebaztea.
- ✓ Presazko kasuetan edo larrietan, bere erantzukizunpean berak bere gain hartzea jarduneko eragiketa edo lan zehatzen berehalako zuzendaritza. Horretarako, kontratistak bere esku jarri beharko ditu langileak eta materiala.

3.3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilera Euskadiko kontratazio publikorako plataformaren bidez iritsiko da honako webgune honetan:

https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpeperfi/es/contenidos/poder_adjudicador/poder80/es_doc/es_arch_poder80.html

4. AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA, PREZIOAK BERRIKUSTEA, KREDITUA IZATEA

4.1. AURREKONTUA

Kontratuaren hasierako indarraldirako kontratu honen gehieneko gastuaren aurrekontua (balio erantsiaren gaineko zerga kanpo) ezaugarrien taulako C.1 atalean zehazten da, eta lizitazioaren oinarritzat hartuko da.

Ondore guztietarako aurkeztutako eskaintzetan sartutzat joko dira balorazio-faktore guztiak, hau da, kontratua behar bezala egikaritzeko enpresa esleipendunaren gastuak, hala nola gastu orokorrak, material suntsikorrak, tresnak, finantza-gastuak, aseguruak, garraioak eta lekualdaketak, bai eta indarreko xedapenen arabera aplikatu behar zaizkion zerga-mota guztiak ere. Edozelan ere, preskripzio teknikoen agirian aurrez ikusitako zehaztapenak kontuan hartuko dira. BEZari dagokion zenbatekoa partida bereizian zehaztuko da.

Aurrekontua gainditzen duten proposamenak ezetsiko dira.

4.2. BALIO ZENBATETSIA

SPKLren 101. artikuluak xedatzen duenerako, balio zenbatetsia ezaugarrien taulako C.2) atalean adierazten da.

Kontratu baten balio zenbatetsiaren kalkulua guztizko zenbatekoan oinarritzen da, BEZa kanpo. Kalkulu hori egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan: guztizko zenbateko zenbatetsia, behin-behineko edozein aukera barne, eta kontratuaren balizko luzapenak, kontratuaren aldaketen zenbatekoa, lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoaren gainean kalkulatua, eta, hala badagokio, hautagai edo lizitatzaileei egindako primak edo ordainketak, bai eta, hala badagokio, artikulu horretan adierazitako gainerako alderdiak ere.

4.3. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ezaugarrien taulako C.5) atalak hala aurreikusten badu, prezioak berrikusiko dira. Halakoetan, atalean azaltzen den indizea edo formula erabiliko da, hori guztia SPKLren 103. artikulutik 105. artikulura bitartean xedatutakoarekin bat etorriz.

4.4. KREDITUA IZATEA

Aurrekontuaren aplikazioa ezaugarrien taulako C.4) atalean azaltzen da.

Kontratazio-organoak onetsitako aurrekontuaren zenbatekora arte kreditu nahikoa dago.

Ezaugarrien taularekin bat etorriz, espedientea aurreratua izapidetzen bada, kontratua hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura kreditu nahikoa eta egokia dagoenean esleituko da. Era berean, beste ekitaldi batzuetara zabalduz gero, kontratazioak eskatzen dituen gastuei erantzuteko, Udalak aurrekontuetan urtero zenbateko nahikoak izendatzeko konpromisoa hartuko du.

Zerbitzuak zenbait urtetan egiten badira, kreditua eta etorkizuneko eskuragarritasuna kontratuaren ezaugarrien taulako C.4) atalean aurrez ikusten dira.

Kanpotik finantzatuz gero, alderdi hori ezaugarrien taulako C.6) atalean adieraziko da.

5. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA ETA PROPOSAMENEN DOKUMENTAZIOA

5.1. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1) Proposamenak aurkeztu ahalko dituzte pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerritarrek, banaka edo aldi baterako elkartean batuta (SPKLren 69. art.), baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kontratatzeko SPKLren 71. artikuluan edo aplika daitekeen beste xedapen batean ezartzen den debekuren bat ez badute.
Lizitatzaileak pertsona juridikoak direnean, agiri honen xede den kontratuko prestazioak jardueraren xedeen, helburuaren edo eremuaren barruan sartuta egongo dira eta estatutu edo fundazio-arauekin bat, berezkoak izango dituzte. Horrez gain, ezinbestekoa da azpiegitura egokia kontratua behar bezala egikaritzeko.

2) Gainera, interesdunek egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa dutela, gorabehera ekonomiko edo finantzarioak direla bide, kontratu hau behar bezala gauzatzeko arriskua egon ez dadin. Kontratua egikaritzeko, era berean, modu egokian gauzatze aldera gaitasun tekniko edo profesional egokia izango da.

Hori guztia ezaugarrien taulako F) atalean zehazten diren bitartekoen bitartez ziurtatuko da.

Erregulazio harmonizatuaren araberakoak ez diren kontratuen kasuan, kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, gaitasun teknikoa enpresa sortu berrietarako berariaz F.2) atalean aipatzen diren bitartekoen bidez egiaztatuko da.

3) Kaudimena beste enpresa batzuen erreferentziaren bidez ziurtatzea.

Sozietate-talde bateko pertsona juridiko nagusien kasuan, taldeko sozietateak kontuan hartu ahalko dira pertsona juridiko nagusiaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ziurtatzeko, betiere kontratuak egikaritze aldera sozietate nagusiak sozietate horien bitartekoak egiaz eskura dituela egiaztatzen badu.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, beraiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere kontratua betearazteko epe osoan benetan kaudimen eta baliabide horiek izango dituela erakusten badu, eta horretarako baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Baldintza beretan, SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako enpresa elkarteetan biltzen diren enpresaburuek aldi baterako elkarteetatik kanpoko entitateen gaitasunetara jo ahalko dute.

Hala eta guztiz ere, SPKLren 90.1.e) artikuluan adierazi diren ikasketa- eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei edo dagokion lanbide-esperientziari dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo ahal izango dute, baldin eta erakunde horiek esandako gaitasunak beharrezkoak dituzten zerbitzuak egingo badituzte.

Enpresak batek beste erakunde batzuen gaitasunak erabili nahi dituenean, esleipen-agintaritzari frogatuko dio bitartekoak izango dituela eta, horretarako, erakunde horiek beren konpromisoak idatziz azalduko dituzte.
Aurreko paragrafoan aipatzen den konpromisoa eskaintzarik onena duen lizitatzaileak aurkeztuko du.

Kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari dagokionez, enpresa batek beste erakunde batzuen gaitasunetara jotzen duenean, esleipen-agintaritzak enpresaren eta beste erakunde horien artean baterako erantzukizun-moduak eskatu ahal izango ditu kontratua egikaritzeko, bai eta solidarioa izatea ere.

5.2. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1) Enpresa interesdunen proposamenek honako hizpaketa hauek bete beharko dituzte:

- Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiari eta kontratazio-organoari

baimena ematea ere Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko ere.

- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta izaera hori proposamenak ireki arte zaintzen dela bermatzeko bitartekoak erabakiko dira.
- Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.
- Era berean, ezin izango du inolako proposamenik izenpetu aldi baterako elkarte batean beste batzuekin batera, banaka egin badu, edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon.

Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko lizitatzaile hark izenpetutako proposamen guztiak.

2) Lizitatzaileek halabeharrez beren eskaintzak elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman adierazten den lizitazio elektronikoaren web helbidearen bitartez.

"Eskaintza elektronikoa eta horrekin batera aurkeztutako beste edozein agiri elektronikoki sinatuta egon beharko dira; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemaren bat erabilita, hain zuzen."

3) Lizitatzaileak proposamenak aurkeztuz gero, agirietan aurrez ikusitako klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onetsiko du, inolako salbuespenik edo eragozpenik gabe.

4) SPKLren 133. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa lizitatzaileek bidezkoa bada, adierazpen gehigarri arrazoituaren bidez, adierazi beharko dute zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren beren iritziz konfidentzialak. Inguruabar hori argi eta garbi azaldu beharko da halakotzat jotzen den dokumentuan bertan (gainjarrita, marjinan edo beste edozein modutan). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat har daitezke sekretu teknikoak edo merkataritzakoak direnean, baldin eta eskaintzaren alderdi konfidentzialekin eta beste edozein informaziorekin lehia faltsutu badaiteke lizitazio-prozedura honetan edo ondoren izan daitezkeen bestelakoetan. Kontratazio-organoaren konfidentzialtasun-eskakizuna eta mendeko obrena ezingo da esleipendunaren eskaintza guztira zabaldu, ez eta kontratazio-organoak, zuzenean edo zeharka, lizitazioaren prozeduran zehar sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki guztira ere. Bakarrik hedapen mugatua duten dokumentuetara zabaldu ahalko da, eta inola ere ez publikoki irisgarriak diren dokumentuetara.

Adierazpen arrazoiturik aurkezten ez bada, dokumentuak edo datuak ez dira halakotzat joko.

5) Kontratazio-organoak lizitatzaileek aurkeztutako proposamenen konfidentzialtasuna bermatzen du, SPKLren 133. artikuluak xedatutakoaren arabera.

6) SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarria edo osagarria eman behar denean, administrazio kontratatzaileak Ezaugarri Berezien Taularen P) atalean ezarritako epeetan eman beharko du.

Eskaria egiteko, lizitazioaren iragarkian datorren helbide elektronikoari erreparatuko zaio.

Argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten badira, erantzunak lotesleak izango dira.

5.3. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

- **PROZEDURA-MOTA GUZTIETAN (IREKIA, IREKI SINPLIFIKATUA ETA IREKI SUPER SINPLIFIKATUA) FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKI KOMUNA:**

A1) LEHENENGO FITXATEGI ELEKTRONIKOA, "ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA" DUENA:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, nahitaezkoa, kontratazio-agiri europear bakarrarekin (EKAB), kontratazio bakoitzerako argitaratuko den ereduaren arabera.

b) Enpresaburuen aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresak edo gehiagok parte hartzen badute lizitazio batean, aldi baterako elkartea eratuta, orduan agiri pribatua aurkeztu beharko dute. Bertan, honako hauek adierazi beharko dituzte: hura sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza, eta formalki aldi baterako elkartea eratzeko hartu duten konpromisoa, baldin eta esleipendun suertatzen badira (SPKLren 69. artikulua eta APKLAOren 24. artikulua).

Aipatutako agiria elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek izenpetu beharko dute. Halako kasuetan, enpresa bakoitzak Kontratazio Agiri Europar Bakar propioa aurkeztu beharko du. Agiri honen **I. ERANSKINEAN** jaso da Aldi Baterako Enpresaburuen Elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non azaltzen den kontratua egikaritzeko agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian azaldutako zehaztapen eta profilak dituzten giza baliabideak eta bitarteko materialak atxikiko direla. Horrez gain, kontratuaren xede den jarduera egiteko langileei aplikatuko zaien hitzarmen edo akordio kolektiboa aitortuko da, eta kaudimen-eskakizunak betetzen direla azaldu ere bai.Gaitutako

helbide elektroniko bat, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz. Helbide horretan egingo dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. Gutxienez, ezaugarri berezien taulako M) atalean ezarritako mugak betetzen dituen erantzukizun zibileko asegurua eratzeko konpromisoa hartu beharko du. Zinpeko adierazpen bakarra aurkeztu behar da eskatutakoa betetzen dela azaltzeko, **III. ERANSKIN**ari jarraikiz.

d) Bidezkoa bada, lizitatzaile atzerritarrek aurkeztu behar duten dokumentazioan berezitasunak.

e) Bidezkoa bada, konfidentzialtasunaren adierazpena agiri honetako 5.2.5 klausulak azaldutako baldintzetan.

f) Hala badagokio, ezaugarrien taulako G.1) atalean xedatzen den dokumentazio gehigarria.

Kontratazio-organoak edo -mahaiak eskatu ahalko die lizitatzaileei justifikazio-agiri guztiak edo zati bat aurkezteko, adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz arrazoizko zalantzak daudela uste duenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, hala badagokio, kontratua esleitu baino lehen.

A2) BALIO-IRITZIPEKO IRIZPIDEAK DITUEN FITXATEGI ELEKTRONIKOA (IRIZPIDE KUALITATIBOAK):

- Lizitatzaileek beren eskaintzak baloratu eta haztatzeko dokumentuak aurkeztuko dituzte ezaugarrien taulako j) atalari jarraikiz formularen bidez zenbatu ezin daitezkeen eskaintzen balorazio-irizpideei dagokienez.

- Fitxategi elektroniko edo gutun-azal honetan ez da inola ere eskaintza ekonomikorik sartuko, ez eta eskaintza ekonomikoaren dokumentu adierazgarririk edo formularen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumenturik ere.

- Ezaugarrien taulako B.5) atalean aldaerak (hobekuntzak) aurkezteko aukera aurrez ikusten bada, proposatutakoek kontratuaren xedearekin zuzeneko harremana izango dute, ekonomikoki balioetsiko dira, eta atalean aipatzen diren baldintzak errespetatuko dituzte. Hobekuntzak kontratazio-organoak berariaz onesten baditu, esleipen-akordioan kontratuaren zati izango dira.

A3) FORMULAREN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA DUEN FITXATEGI ELEKTRONIKOA EDO GUTUN-AZALA:

Proposamen bakarra edukiko du, lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatua, agiri honen II. eranskinean dagoen ereduaren arabera idatzia.

Dena den, B.5) atalean aldaerak aurkeztea baimentzen bada, baimentzen diren konponbideak edo aldaerak izan ditzakete, beraz, eskaintza ekonomiko aldakorrak aurkeztuko dira.

- Eskaintza ekonomikoak partida independente gisa izango du jasanarazi behar den BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du kontratuaren lizitazio-aurrekontua gainditu.
- Ondore guztietarako eskainitako prezioan sartuta egongo dira kontzeptu guztiak, gastuak, tasak eta edozein zerga-arloko arielak eta kontratistaren mozkin industriala barne, BEZa izan ezik. Hori partida independentean jasanaraziko da.

Ez da ez-egiteak, akatsak edo ezabaketak **dituen proposamenik onetsiko**, horiek direla bide, Udalak eskaintza kontuan hartzeko oinarritzat jotzen duena argi eta garbi ezin bada ezagutu, aztertutako eta onetsitako dokumentazioarekin bat ez badator, lizitazioaren aurrekontua gainditzen badute, agiri honetako I. eranskinean dagoen proposamenaren eredua oinarrian aldatzen bada, proposamen onuragarrienarekiko konparaziozko zifrak edo antzekoak badituzte eta lizitatzaileak bideragarri egiteko akastuna edo hutsala dela onesten badu.

Letraz eta zenbakiz adierazitako eskaintzaren artean adostasunik eza badago, nagusi izango da letraz adierazitako zenbatekoa (lizitazio-oinarria gainditzen denean izan ezik), salbuespen batekin: dokumentazioa aztertu ondoren arrazoizko irizpideak erabilita, kontratazio-mahaiak beste ikuspuntu bat badu.

Adierazten da eskaintza ekonomikoan ageri diren akatsak zuzenduko direla.
Kontraesanen ondorioz eskaintzak ezesten ez badira, Udalarentzako onuragarriena kontuan hartuko da.

- **<u>PROZEDURA-MOTA BAKOITZAREN BERARIAZKO EDUKIA.</u> Aurreko atalean aipatutako dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:**

B1) ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN ETA EZ-HARMONIZATUAREN ARABERAKO PROZEDURA IREKIAN AURKEZTEKO

Balio-iritzipeko irizpideak baloratzen ez direnean, proposamenak <u>BI FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN</u> (1. eta 2. zk.) aurkeztuko dira.

Fitxategi elektronikoetan edo gutun-azaletan honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA: Aurreko A1) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

- 2. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: FORMULA BIDEZ ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEI LOTUTAKO AGIRIAK. Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

Balio-judizioaren araberako irizpideak baloratzen direnean proposamenak HIRU FITXATEGI ELEKTRONIKO EDO GUTUN-AZAL ITXIETAN (1, 2 eta 3) aurkeztuko dira.

Fitxategi elektronikoetan edo gutun-azaletan honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA: Aurreko A1) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

- 2. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: BALIO-IRITZIPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (irizpide kualitatiboak): Aurreko A2) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

- 3. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: FORMULAREN BIDEZ ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA: Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

B2) PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAN (SPKLren 159.1 ART.) AURKEZTEKO.

Balio-iritzipeko irizpideak baloratzen ez direnean, proposamenak FITXATEGI ELEKTRONIKO BAKARREAN aurkeztuko dira:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENA.

Gutun-azalean aurreko A1) eta A3) ataletako dokumentazioa sartuko da.

Balio-iritzipeko irizpideak baloratzen direnean proposamenak BI FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN (1 eta 2) aurkeztuko dira.

Fitxategi elektronikoetan edo gutun-azaletan honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKO EDO GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BALIO-IRITZIPEKO IRIZPIDEAK:

- Aurreko A1) eta A2) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

- Eskaintzak aurkezteko azkeneko egunean Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizial egokian inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiria. Ziurtagiri honekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko. Ondorio horietarako, onartu ahal izango da, halaber, dagokion erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu izana egiaztatzen duen lizitatzailearen proposamena, horretarako aginduzko dokumentazioarekin batera, baldin eta eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Egoera hori egiaztatzeko, aurkeztu beharrekoak izango dira, batetik, dagokion erregistroak eskaera jaso izanari buruz egindako agiria, eta, bestetik, nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena. Hori guztia, Ezaugarrien Taulako G.1) atalean besterik ezartzen ez bada.

- 2. FITXATEGI ELEKTRONIKO EDO GUTUN-AZALA: FORMULAREN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

  - Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

B3) PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAN (SPKLren 159.6 ART.) AURKEZTEKO.

FITXATEGI ELEKTRONIKO BAKARRA izango du, eta, barruan honako dokumentu hauek:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENA:

  - Aurreko A1) eta A2) atalean aipatutako dokumentazioa sartuko da.

  - Eskaintzak aurkezteko azkeneko egunean Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizial egokian inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiria. Ziurtagiri honekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko. Ondorio horietarako, onartu ahal izango da, halaber, dagokion erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu izana egiaztatzen duen lizitatzailearen proposamena, horretarako aginduzko dokumentazioarekin batera, baldin eta eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Egoera hori egiaztatzeko, aurkeztu beharrekoak izango dira, batetik, dagokion erregistroak eskaera jaso izanari

buruz egindako agiria, eta, bestetik, nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena. Hori guztia, Ezaugarrien Taulako G.1) atalean besterik ezartzen ez bada.

5.4. ENTREGATZEKO LEKUA ETA EPEA:

- Eskaintzak elektronikoki aurkeztuko dira xede horrez ezaugarrien taulako H.3) atalean adierazten den helbide elektronikoan.
- Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea ezaugarrien taulako H.1 eta H.2 atalean ageri dira.

6. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak esleitzeko irizpideak ezaugarrien taulako J atalean zehazten dira.

Bi lizitatzailek edo gehiagok puntu berdinak lortzen badituzte, ezaugarrien taulako J.2) atalean definitutako moduan ebatziko da.

7. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia ezaugarrien taulako I atalean agertzen diren kideek osatzen dute.

Prozedura ireki super sinplifikatuan ez da mahairik egongo, ezaugarrien taulan berariaz ez bada aurrez ikusten.

8. ADITUEN BATZORDEA

Balio-judizioaren araberako irizpideen haztapena automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino handiagoa denean, trebakuntza egokia duten adituen batzordeak baloratuko ditu. Batzordean, gutxienez, hiru kide egongo dira, eta kontratazio-organotik kanpoko arloetakoak izan daitezke, baina ez dira inola ere kontratua proposatu eta eskaintzak ebaluatzen dituen organoari atxikita egongo. Bestela, mandatua erakunde tekniko aditu bati emango zaio, baldin eta agirietan behar bezala identifikatuta badago.

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPEN-PROPOSAMENA

9.1. FITXATEGI ELEKTRONIKOAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, kontratazio-mahaia bilkura pribatuan elkartuko da **1 zenbakidun fitxategi elektroniko**ko edo gutun-azaleko dokumentazioa ikuskatzeko.

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akats edo errore materialak hautematen baditu, bitarteko elektronikoen bidez interesdunei jakinaraziko dizkie eta, gehienez, hiru eguneko epea emango du lizitatzaileak akatsa zuzen dezan.

Eskatzen den fitxategi elektronikoren bat aurkezten ez bada, eskaintzak baztertuko dira.

Kontratazio-mahaiak 1. fitxategi elektronikoko dokumentazioa kalifikatzen duenean eta, bidezkoa bada, zuzenketak egiten dituenean, hala baleude, irizpide kualitatiboak dituen fitxategi elektronikoko edo gutun-azaleko proposamenak ireki eta aztertuko ditu barnean.

Irizpide kualitatiboak baloratu ondoren, edo, halakorik ez badago, 1 zenbakidun fitxategi elektronikoa ireki ondoren, jendaurreko ekitaldian eta lizitazio-iragarkian adierazitako tokian, egunean eta orduan, kontratuaren iragarkia irakurriko da, aurkeztutako proposamenak zenbatuko dira eta onartu eta baztertu diren enpresen berri emango da. Azkeneko kasuan, baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

Jarraian, formularen bidez zenbatu daitezkeen irizpideak dituzten fitxategi elektronikoak jendaurrean irekiko dira.

Fitxategi elektroniko hori betiere jendaurrean irekiko da, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabiltzea aurrez ikusten denean izan ezik.

Eskaintzaren bat ustez eskaintza bideraezina bada ezaugarrien taulako J.3) atalean xedatutakoaren arabera ohiz kanpo beheratuta egoteagatik, ausardian nahasitako lizitatzaileei errekerimendua egingo zaie, eta epe nahikoa izango dute prezio edo kostu merke horiek ala ezohiko eskaintza definitzeko beste edozein parametro modu arrazoituan zehatz-mehatz justifikatu eta banatze aldera. Hala, horretarako egokiak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuko dira, hori guztia SPKLren 149. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Prozedura ireki sinplifikatuan eta super sinplifikatuan errekerimendua eskaintzak sailkatu ondoren egingo da.

9.2. ESLEIPEN-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak edo, hura izan ezean, kontratazio-organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratazio-mahaiak sailkapena egiteko ezaugarrien taulako J atalean aipatutako balorazio-irizpideei erreparatuko die.

Kontratazio-mahaiak, txostena eta esleipen-irizpideen balorazioa egin ostean, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailearen alde esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari (kontratazio-mahaiak sailkatu badu).

Esleipen-proposamenak ez dio proposatutako lizitatzaileari eskubiderik emango kontratazio-organoak erabakitzen ez duen bitartean.

Mahaiko erabakiak betiere behin-behinekoak izango dira.

9.3. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEARI ERREKERIMENDUA

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren esleipen-proposamena onesten duenean, SPKLren 150.2 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, dagokion zerbitzuak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun baliodunen buruan (7 prozedura ireki sinplifikatuaren eta super sinplifikatuaren barruan) honako agiri hauek aurkezteko:

1) Erantzukizunez adierazitako EKABn zehaztu diren **agiriak** –aurretik aurkeztu ez badira behinik behin–, bai lizitatzailearenak, bai hainbat gaitasunetarako erabiliko diren beste enpresa batzuenak:

a) Enpresaburuaren nortasuna ziurtatzeko dokumentuak honako moduan:

a.1.- Pertsona fisikoa denean, nortasun agiri nazionala eta pertsona juridikoa izanez gero, sozietatearen eratze- edo aldaketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan inskribatutakoa, betekizun hau berariazko legedi aplikagarriak hala eskatzen duenean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa eskritura edo agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

a.2.- Ordezkaritza-ahalordeak.

Enpresaburuak Espainiakoak ez badira, baina Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalak izanez gero, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko bere Estatuko legediarekin bat dagokion erregistroan inskribapena aurkeztuko da. Bestela, zinpeko adierazpena egin edo ziurtagiria erantsiko da, araubidez xedatutako baldintzetan, erkidegoko xedapen aplikagarriekin bat.

Enpresaburuak Espainiakoak ez badira eta, horrez gain, Europar Batasuneko estatuaz kanpoko batekoak badira, jarduteko gaitasuna Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-eremuko Kontsularen Bulegoko txostenarekin ziurtatuko dute. Zerbitzu-kontratuak egiteko, gainera, beharrezkoa da enpresa horiek Espainian sukurtsala irekia izatea, eta eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta izatea. Azkenik, Merkataritza Erregistroan inskribatuak egon beharko dute.

Zenbait enpresak lizitazioan aldi baterako elkartean osatuta parte hartzen badute, ABEEaren eratze-eskritura formala aurkeztu beharko da. Era berean, enpresa-elkartearen ordezkaria edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute eta ordezkari horrek ahal nahikoa izan beharko du kontratuaren eskubideak egikaritu eta betebeharrak betetzeko, harik eta kontratua azkentzen den arte. Nolanahi ere, enpresek ahalorde mankomunatuak ere eman ahalko dituzte zenbateko esanguratsuak kobratu eta ordaintzeko.

b) Sailkapena dutela edo, hala badagokio, agiri honetan eta ezaugarrien taulako F) atalean eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren eskakizunak nahiz lanbide-gaikuntza betetzen dituztela ziurtatzen dutenak.

Kaudimena ziurtatzeko beste enpresa batzuetara jo bada, kontratua egikaritzeko bideratu edo atxikiko dituen bitartekoak egiaz dituela egiaztatuko da, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

Dokumentuak originalak edo kopiak izango dira; bigarren kasuan, kautotu edo konpultsatuko dira, arloan indarreko araudiarekin bat etorriz. Gaztelaniaz edo itzulpen ofizialaren bidez aurkeztuko dira.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztuz gero, hartan islatutakoaren babesean eta kontrakoa adierazten ez bada, lizitatzaileak enpresaburuaren ahalmena ez du ziurtatu beharko honako gai hauetan: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, lanbide- edo enpresa-gaikuntza, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta teknikoa edo profesionala, sailkapena eta inskribatuta dauden gainerako inguruabarrak, bai eta kontratatzeko horretan agertu behar diren debekuak izan edo ez izatea ere (SPKLren 96. artikulua).

Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo ez-egiteak hautematen badira, interesdunari errekerimendua egingo zaio, eta, gehienez, hiru (3) egun emango zaizkio, zuzentzeko edo konpontzeko.

2) Honako alderdi hauek justifikatzen dituen dokumentazioa aurkezteko:

a) Estatuko eta Erkidegoko Ogasunari dagokionez, zerga-betebeharrak -berariazkoa administrazioarekin kontratatzeko- eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eguneratuak izatea.
b) Hala badagokio, agiriekin bat kontratazio-organoak erreklamatuta, kontratua egikaritzeko bideratu edo atxikiko diren bitartekoak benetan izatea.
c) Bidezkoa den bermea eratzea, ezaugarrien taulako E) atalean xedatutakoarekin bat etorriz.
d) Hala badagokio, ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA kontratatu izanaren frogagiria, Ezaugarri Berezien Taulako M) atalaren arabera.

Xede horrez emandako epean esleipendun gisa proposatutako hautagaiak behin betiko bermea osatzen ez badu, puntuen arabera hurrengo hautagaiaren alde egingo da esleipen-proposamena, eta dagokion epea emango zaio dokumentazioa aurkeztu eta bermea osatzeko klausula honetan zehazten diren baldintzetan (SPKLren 159.4 art.)

Lizitatzaileak kontratatzeko debekua izango du, SPKLren 71.1.e) artikuluarekin bat etorriz, gaitasunari, ordezkaritzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenetan datu faltsuak eman baditu.

Azpiatal honetan ezarritakoa aipatutako epean betetzen ez duen lizitatzaileak, dolo, erru edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua duela ezarri ahalko da. SPKLren 71.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9.4. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamar egun baliodunen epean ziurtatu beharko du esleipen-zenbatekoaren % 5eko behin betiko bermea (BEZa kanpo). SPKLren 102.7 artikuluak aipatzen dituen behin-behineko prezioko kontratuen kasuan, ehunekoa finkatutako gehieneko prezioaren arabera (BEZa kanpo) kalkulatuko da. Bermea aurkezteko moduari, erantzukizunei eta itzulerari dagokionez, SPKLren 107. artikulutik 114. artikulura bitartean xedatutakoa kontuan hartuko da.

Behin betiko bermea eratzetik salbuetsiak egongo dira erakundeak, estatuko legeek edo erkidegoko xedapenek salbuespen hori onesten badiete. Azkeneko ustezkoan beren eskumen-eremura mugatuko da.

Kontratuaren aldaketak direla eta haren balioa aldatzen denean, berriro egokituko da bermea, 15 egun naturaleko epean, esleipendunari kontratu-aldaketaren ebazpena jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Arrazoituta, ezaugarrien taulako E) atalean hala azaltzen bada, berme osagarria zehaztuko da eta behin betiko bermearen zenbatekoari gehituko zaio, betiere SPKLren 107.2 artikuluak aurrez ikusten dituen mugekin.

Berme-aldian kontratistak bere kargura zuzendu beharko ditu zerbitzuetan hautemandako urritasun guztiak, alde batera utzi gabe bere erantzukizuneko ondorioak, agiri honek eta SPKLren 243 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren egikaritzea amaitzen denean eta berme-aldia bukatutakoan, behin betiko bermea itzuliko da, baldin eta kontratua behar bezala bete bada eta, ondorioz, bermearen gainean erantzukizunik ez bada aplikatu behar, SPKLren 111. artikuluaren babesean.

9.5. ESLEIPENA

Kontratazio-organoak esleipen-ebazpena eman beharko du dokumentazioa jaso eta ondoko bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Esleipen-ebazpena arrazoituko da, eta hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Gainera, esleipena Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena baliabide elektronikoen bitartez egingo da SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratuaren esleipenduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, esleipena, gehienez, hamabost egunetan egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ezaugarrien taulak bestelakoa adierazten duenean izan ezik.

Kontratua esleitzeko hainbat irizpide kontuan hartu behar direnean, edo irizpide bakarra bizi-zikloaren kosturik txikiena bada, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen diren egunetik zenbatzen hasita, ezaugarrien taulak beste bat zehazten duenean izan ezik.

Proposamena gutun-azal edo fitxategi elektroniko batean baino gehiagotan dagoenean eta, ondorioz, zenbait ekitaldi independentetan ireki behar denean, aurreko epea

proposamenaren zati bat duen gutun-azal edo fitxategi elektronikoa irekitzen den lehenengo ekitalditik hasiko da zenbatzen.

Lehen aipatu diren epe horiek hamabost egun baliodunetan zabalduko dira ustez ezohiko eskaintza bat edo gehiago identifikatu direnean, SPKLren 149.4 artikuluko 4 atalak adierazten duenaren ildotik.

Esleipena adierazitako epeen barruan egiten ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute proposamena erretiratzeko.

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA

10.1.KONTRATUA FORMALIZATZEA

Esleitu ondoren, kontratua agiri administratiboan formalizatuko da, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituz, eta agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sartzeko.

Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua aldi baterako enpresen elkarteari esleitzen bazaio, kontratua formalizatzeko epearen barruan eskritura publikoan osatu dutela egiaztatuko dute eta elkarteari atxikitako IFZa erantsiko dute.

Kontratua ezingo da aurretik formalizatu ezean gauzatu.

Prozedura ireki super sinplifikatuan, ezaugarrien taulan bestelakoa jakinarazten denean salbu, ez da kontratua formalizatu beharko. Kontratua kontratistak esleipen-ebazpena onesten duela sinatuz formalizatuko da.

Enpresa esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua hurrengo atalean adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, administrazioak lizitazio oinarri den aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71.2.b) artikuluan ezarritakoa gorabehera.

Halakoetan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenaren arabera, baina aurretiaz SPKLren 150.2 artikuluan zehaztutako

dokumentazioa aurkeztu beharko du eta aurreko atalean definitutako epeak aplikagarriak izango dira.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Udalari egotzi ahal bazaizkio, berandutzak kontratistari sorrarazten dizkion kalte-ordainak ordainduko zaizkio.

Kontratua formalizatzean burutuko da eta, beraz, hori gertatu arte ezingo da egikaritzen hasi.

Kontratua formalizatzean kontratatzailearen profilean argitaratuko da, esleipen-iragarkiko datu berdinekin.

Kontratua erregulazio harmonizatuaren araberakoa bada, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10.2.KONTRATUA FORMALIZATZEKO EPEA

Lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena SPKLren 151. artikuluak araututako moduan jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen formalizatu beharko da kontratua.

Prozedura hau erregulazio harmonizatuaren araberakoa denean edo SPKLren 153.3 artikuluak xedatutakoarekin bat errekurtso berezia jar daitekeenean, ezingo da formalizatu lizitatzaileei eta hautagaiei esleipen-jakinarazpena bidaltzen zaienetik 15 egun baliodun igaro arte. Epe hori igarotakoan kontratistari eskatuko zaio 5 egun baliodunetan formalizatzeko, etetea eragingo duen errekurtsorik jarri ez bada edo jarrita ere, errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etenaldi hori deuseztatzen badu, agiri honen hirugarren klausulan xedatutakoaren babesean.

Presaz izapidetuz gero, lizitatzaileek eta hautagaiek esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo 7 egunen buruan formalizatuko da kontratua. Prozedura erregulazio harmonizatuaren araberakoa denean edo SPKLren 153.3 artikuluak xedatutakoarekin bat errekurtso berezia jar daitekeenean, ezingo da formalizatu lizitatzaileei eta hautagaiei esleipen-jakinarazpena bidaltzen zaienetik 15 egun baliodun igaro arte. Epe hori igarotzen denean, kontratistari errekerimendua egingo zaio 3 egun baliodunetan formalizatzeko.

11. KONTRATUA GAUZATZEA ETA KONTRATUA ALDATZEA

11.1.KONTRATUA GAUZATZEA

- Kontratua ezingo da aurretik formalizatu ezean gauzatu.

- Kontratua gauzatuko da kontratuaren beraren klausuletan eta orrietan ezarritakoari jarraituz, eta bat eginda horiek interpretatzeko Udalak kontratistari emandako jarraibideekin.

- Kontratista behartuta dago kontratua osorik betetzera, hala ezartzen baita SPKLren 192. eta 197. artikuluetan.

- Lanak dirauen bitartean kontratua aldatu behar bada plegu honetan xedatutakoaren arabera, SPKLren 190, 191 eta 203 artikuluetan aurreikusitako eran jokatuko da. Kontratu-baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du.

- Kontratua eteten bada, SPKLren 208. artikuluan eta garapen-arauetan ezarritakoaren arabera egingo da. Udalak lanak etetea erabakitzen badu, dagokion etete-akta egingo da.

- SPKLren 311. artikuluarekin bat, kontratista izango da emandako zerbitzuen erantzule, bai eta ez-egiteek, manuen edo erregelamenduen arau-hausteek, akatsek, metodo desegokiek edo kontratua gauzatzean ondorio okerrek Udalari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere.

- Kontratazio-organoak zehaztuko du ea kontratistak eskainitako prestazioak bat egiten duen gauzatu eta betetzeko ezarritako baldintzekin, hala ezartzen baita SPKLren 311. artikuluan.

- Esleipendunak bermatu beharko du itundutako baldintzetan beteko duela zerbitzua, kontratua indarrean dagoen bitartean; eta oporraldietan eta antzeko beste egoera batzuetan ezin izango da zerbitzua aldatu.

- Zerbitzuaren jasotzea SPKLren 210. artikuluaren arabera egingo da.

- Kontratistak eta bere azpikontratistek ezaugarrien taulako K) atalean aipatzen diren egikaritze-baldintza bereziak bete beharko dituzte.

Hori betetzen ez bada, zehapenak ezartzeko espedientea hasiko da, eta, proportzionaltasunaren arabera, kontratuaren prezioaren %10etik %50era bitartekoa izan daiteke. Are gehiago, kontratua suntsitu ahalko da.

11.2.ALDAKETA

Kontratazio-organoak kontratua gauzatu ostean, interes publikoko arrazoiak direla eta, erabaki dezake SPKLren 203. artikulutik 205. artikulura aurrez ikusitako moduan eta kasuetan aldatzea. Era berean, SPKLren 242. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuko da.

Kontratua aldatu ahalko da ezaugarrien taulako N) atalak berariaz aurrez ikusten badu.

Hori izan ezean, salbuespenez, kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikulua aplikatuta.

Kasu hauetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak kontratistak nahitaez bete beharko ditu, baldin eta kontratuaren prezioaren % 20 baino gehiago aldatzen ez bada.

Aldaketarekin unitateak kendu edo murrizten badira, kontratistak ez du kalte-ordaina erreklamatzeko eskubiderik izango.

Kontratuaren aldaketak kontratazio-organoak behar bezala onetsi ez baditu, agiri honetan aurrez ikusitakoarekin bat, kontratistak erantzukizuna izango du, eta baimenik gabe gauzatutako aldaketak ordaintzeko eskubidea galduko du.

12. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

12.1.KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko ezaugarrien taulako K atalean adierazitako baldintza bereziak eskatuko dira.

12.2.EPEAK BETETZEA

Esleipendunak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren guztizko egikaritze-epea eta epe partzialak, bidezkoa bada, Udalak finkatu ostean.

Guztizko epea amaitutakoan kontratista berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik berandutu bada, Udalak kontratua suntsiaraztea edo zehapen ekonomikoak jartzea erabaki dezake. Egunero jarriko dira, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan. Edozelan ere, kontratistaren aldetik berandutzea zehazteko, Udalak ez dio aldez aurretik ohartarazi edo mehatxatuko.

Berandutzeagatiko zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplora iristen diren bakoitzean eta kontratistaren ez-betetzea epe partzialak betetzeari buruzkoa bada, edo epe horiek betetzeko atzerapenak guztizko epea betetzea ezinezkoa dela arrazoiz pentsarazten badu, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo hura gauzatzen jarraitzeko, zehapen berriak ezarriz.

Kontratistak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako zerbitzuen zati bat betetzen ez badu, administrazioak aukera hauek izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren % 10eko zigorra ezartzea.

Zehapenak kontratazio-organoaren erabakiz jarriko dira, eta berehala betearazleak izango dira. Ordaintzeko ordainketa osoaren edo partzialaren kontzeptupean kontratistari ordaindu behar zaizkion zenbatekoetatik kenduko dira. Bestela, osatutako bermetik kenduko dira, ziurtapenetik kentzea ezinezkoa denean.

Zehapenak aplikatu eta ordaindu arren, kontratista berandutzearen ondorioz Udalak kalte-galerak dituelako eskubidea badu, kontratistari ez zaio kalte-ordaina ematez salbuetsiko.

12.3.LANBIDEKO SEKRETUA ETA GARDENTASUNA

LANBIDEKO SEKRETUA

Esleipendunak konpromisoa hartzen du isilpeko informazioari buruzko konfidentzialtasun eta isilpekotasun zorrotzena gordetzeko, eta konpromisoa hartzen du informazio hori hirugarrenei ez jakinarazteko, agiri honetan berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik. Halaber, konfidentzialtasun- eta sekretu-betebehar horiek bermatuko dituzten neurri teknikoak, juridikoak, prestakuntzakoak eta antolaketakoak ezarri beharko ditu.

Esleipendunak konpromisoa hartzen du isilpeko informazioa kontratua betetzeko ezinbestez behar duten erakundeko pertsonei baino ez zabaltzeko. Bestalde, isilpeko informazioa eskuratu baino lehen, konfidentzialtasun-kontratua sinatu beharko dute, agiri honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko. Era berean, esleipendunak konpromisoa hartzen du azpikontratatutako edozein, enpresa, elkarte, fundazio, profesional, eta abarrekin konfidentzialtasun-akordioak sinatzeko, agiri honetan xedatutako baldintza berdinetan, kontratuaren aurreikuspenen arabera proiektuko ekintzen zati bat azpikontrata daitekeen kasuetan.

Isilpeko informazioa esleipendunak konpromiso honen esparruan baino ezingo du erabili, eta helburu bakarra izango da kontratua bete eta garatzea. Hala, kontratutik kanpo, ez da beste asmo edo helburu baterako erabili eta aplikatuko.

Edozein arrazoitan oinarrituta, kontratua amaitzen denean, esleipendunak, orokorrean eta kontratuan beste aurreikuspen bat dagoenean salbu, informazioa itzuli beharko du eta, bidezkoa bada, bere sistema informatikoetatik modu eraginkor eta seguruan ezabatuko du, haietan sartuta egonez gero.

Konfidentzialtasunaren eskakizunak kontratuaren indarraldian iraungo du, eta hala jarraituko du amaitu eta hurrengo bost (5) urteetan, suntsiaraztearen arrazoia gorabehera. Bestalde, konfidentzialtasun-konpromisoaren lurralde-eremua mundua izango da.

Isilpeko-informaziotzat joko da aurreko elementuen gaineko edozein datu, prozedura, teknika, know-how, informazio edo azalpen, kontratua indarrean dagoen bitartean Udalak esleipendunaren esku jartzen, jakinarazten edo jartzen duen izaera teknikoa, komertziala edo ekonomikoa alde batera utzita. Ez zaio erreparatuko erabilitako bitartekoari edo prozedurari, ahozko jakinarazpena barne.

Hala eta guztiz ere, ez da isilpeko informaziotzat joko eta, ondorioz, klausula honetan hizpatutako eskakizunak ez dira bete beharko esleipendunak informazioari buruz honako hau frogatzen badu:

- Esleipendunak legezko bitartekoen bidez lortu du Udalak eman baino lehen.

- Udalak emandakoan edo geroago publiko bihurtu da.

- Hirugarrenen bidez jaso da, esleipendunarekin konfidentzialtasunari buruzko eskakizunik izan gabe.
- Esleipendunak garatu du, Udalak eman dion isilpeko informazioa aparte utzita, betiere dokumentuen bidez ziurta badaiteke.
- Esleipendunak, lege-eskakizunak bultzatuta, hirugarrenari jakinarazi behar dio. Dena den, halakoetan esleipendunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio Udalari inguruabar hori, egokitzat iruditzen zaizkion neurriak har ditzan. Helburua da informazioaren isilpekotasuna babestea. Nolanahi ere, esleipendunak konpromisoa hartzen du ezinbestez zabaldu behar den informazioa bakarrik helarazteko eta informazioaren isilpekotasuna babeste aldera beharrezko egintzak gauzatzeko.

- Udalak zabaltzea baimendu dio.

GARDENTASUNA

Esleipendunak nahitaez emango dizkio Urdulizko Udalari Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen III. kapituluan eta Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko Euskal Legebiltzarraren 2/2016 Legearen 49.4 artikuluan xedatzen diren preskripzioak behar bezala betetzeko beharrezkoak dituen datuak edo dokumentuak.

Eskatutako datuak edo dokumentuak arestian aipatu diren legezko xedapenak behar bezala betetzeko epeetan entregatuko dira. Epea xede horrez bidalitako errekerimenduan adieraziko da.

Datuak edo dokumentuak entregatzen ez badira edo berandu egiten bada, arau-haustetzat joko da, eta SPKLren 192. eta 193. artikuluek xedatutakoaren arabera zehatu ahalko da.

12.4.ENPRESA KONTRATISTAREN LANGILE LAN-KONTRATUDUNENTZAKO ARAU BEREZIAK

1. Beren-beregi enpresa kontratistari dagokio kontratua egikaritzeko lantaldeko langileak hautatzea, eta agirietan eskatzen diren titulazioaren eta esperientziaren eskakizunak bete beharko dituzte (berezko titulazio- eta esperientzia-eskakizunak zehazten diren kasuetan).

Enpresa kontratista lantaldean egonkortasuna lortzen saiatuko da. Zerbitzuen funtzionamendu ona ez asaldatzeko (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean), helburua konposizioan aldaketa puntualak gertatzea eta arrazoi justifikatuei erantzutea da. Dena den, une oro Udalari berri emango zaio.

2. Kontratuan jardungo duten lantaldeko langileei dagokienez, enpresa kontratistak eraginkortasunez, egiaz eta etengabe enpresaburu orori atxikitako zuzendaritza-ahalmena nahitaez bere gain hartuko du. "Bereziki, bere ardurakoak dira ordainsariak negoziatu eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; bajen edo ez-agertzeen kasuan langileen ordezkapenak; Gizarte Segurantzaren arloan lege-betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean; lan-arriskuak prebenitzearen arloan lege-betebeharrak; diziplina-ahalmena erabiltzea; baita langile eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik sortutako eskubide eta betebeharrak ere."

3. Enpresa kontratistak kontratua gauzatzeari atxikitako langileek beren jarduera garatzen dutela zaindu beharko du, kontratuaren xede gisa agiri hauetan mugaturiko jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunen muga gainditu gabe.

4. Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du bere langileen artetik, eta ondorengo betebehar hauek izango ditu:

a) Udalaren aurrean enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea eta, batetik, enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta, bestetik, Udalaren artean komunikazioa bideratzea kontratua gauzatzearen inguruko gai guztiei dagokienez.

b) Kontratua gauzatuko duten langileen artean lana banatzea eta langile horiei beharrezkoak diren lan-aginduak nahiz -argibideak ematea kontratatutako zerbitzua gauzatzeari dagokionez.

c) Lantaldeko lankideek emandako zereginak behar bezala betetzen dituztela ikuskatzea eta langileak lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d) "Kontratua egikaritzeari atxikitako langileen opor-araubidea antolatzea; xede horrez, behar bezala koordinatuko dira enpresa kontratista eta Udala, zerbitzuen funtzionamendu ona ez asaldatzeko."

e) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen osaeran izandako aldaketa iraunkor edo aldian behingoei buruz berri ematea Udalari.

f) Esleipendunaren eta Udalaren arteko harremanari dagokionez, bi erakundeen arteko komunikazio oro idatziz egingo da, eta Udalean harremanetarako pertsona zentroko gerentziak izendatutako arduraduna izango da.

12.5. KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

- Zerbitzuak gauzatzen diren bitartean, enpresaren ardurapeko langileen ekintza, ez-egite edo zabarkeriaren ondorioz, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publiko zein pribaturi, eragin dakizkiokeen kalte eta galera guztien erantzulea izango da enpresa kontratista. Ildo horri jarraikiz, kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kalte-galerak kontratazio-organoaren zuzeneko eta berehalako aginduaren ondorioz sortzen direnean, kontratazio-organoa izango da arduraduna legeak aipatutako mugen barruan.

- Xede horrez, enpresa esleipendunak nahitaezko aseguruak izango ditu. Nolanahi ere, kontratistak, kontratua esleitu baino lehen, honako aseguru-kontratu hauen polizaren kopia aurkeztuko du, esleipendunak ezinbestez kontratatu behar baititu eta bere kargura mantenduko baititu zerbitzua ematen den bitartean eta berme-aldian:

- **Erantzukizun zibilaren asegurua**, ezaugarrien taulan ageri den zenbatekoa estaltzeko. Aseguratu osagarri gisa Urdulizko Udala azalduko da.

12.6. SUBROGAZIOA

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eragin orokorra daukan negoziaketa kolektiboko akordio batek esleipenduna enplegatzaile gisa subrogatzera behartzen badu lan-harreman jakin batzuei dagokienez, subrogatu beharreko langileek dituzten kontratuen lan-baldintzei buruzko behar besteko informazioa emango zaie lizitatzaileei, betiere neurri horren ziozko laneko kostuak ebaluatzeko kalkulu zehatza egite aldera. Informazio hori emango da SPKLren 130. artikuluak ezarritakoa eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legeak, Kontratazio publikoan gizarte-klausula jakin batzuk txertatzen dituenak, 6.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

SPKLren 130. artikuluak xedatzen duena eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legeak –Kontratazio publikoan gizarte-klausula jakin batzuk txertatzen dituenak– 6.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko, karatulan jasotzen da legezko arau baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio baten bidez subrogatzeko betebeharrari buruzko informazioa.

Honako kontratu honen esleipena eskuratzen duen enpresak, eragindako langileen enplegatzailea den aldetik, arestian esandako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak eskatuz gero. Nolanahi ere, informazioaren zati gisa, subrogatu beharreko langileen zerrendak aurkeztu beharko dira, eta bertan honako hauek zehaztu: aplikagarria den hitzarmen kolektiboa, langile bakoitzaren lan-maila, kontratu-mota, lansaio, antzinatasun-data, kontratuaren mugaegun eta urteko soldata gordinari buruzko xehetasunak, bai eta subrogazioak eragindako langileei aplikagarri zaizkien indarreko hitzarmen guztiei buruzko xehetasunak ere. Subrogazioa gauzatutakoan, baldin eta lan-kostuak handiagoak badira lehengo kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen diren lan-kostuak baino, esleipendun berriak zuzeneko ekintzak bideratu ahalko ditu lehengo esleipendunaren aurka.

Era berean, eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko aukera alde batera utzi gabe, esleipenduna behartuta dago subrogazioak eragindako langileei ordaindu ez zaizkien soldaten erantzule izatera, bai eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen erantzule izatera ere, baita kontratua suntsiarazten bada eta esleipendun berriak subrogatzen baditu ere; eta betebehar hori, nolanahi ere, ez dagokio inola ere azken horri.

Kasu horretan, esandako lansariak ordaindu ez direla egiaztatuta, administrazioak zor diren zenbatekoak atxikiko dizkio esleipendunari lansarien ordainketa bermatzeko eta, gainera, ez dio behin betiko bermea itzuliko lansariak ordaindu egin direla egiaztatu arte.

Kontratuak irauten duen artean, esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratuaren xede den jarduera garatzen duten langileei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruzko argibide guztiak emateko Gorlizko Udalari, azkenak eskatzen dizkion guztietan.

13. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK: LANAK ORDAINTZEA ETA FAKTURAZIOA

13.1.ORDAINKETAK

Zerbitzuak ezaugarrien taulako C.8 atalean adierazitakoaren arabera ordainduko dira.

Kontratistak esleipenean hitzartutako prezioa kobratzeko eskubidea du, benetan egindako lanengatik eta Udalaren adostasunez formalki jasotako lanengatik, baina ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango kontratua gauzatzean sortutako matxura eta kalteengatik, non eta Udala ez den erruduna izan.

Prestaketa-jarduerengatik, materialak biltzeagatik eta zerbitzuei atxikitako makineria-ekipoengatik konturako ordainketak egiteko, SPKLren 198. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Kontratistak ezin izango du inolako preziorik edo kalte-ordainik erreklamatu kontratuko estipulazioetatik kanpo egindako lanengatik, ezta ezarritakotik kanpo gauzatutako zerbitzuak guztiz beharrezkoak zirela alegatu eta frogatuta ere, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz.

Udalak prezioa ordaindu beharko du faktura onartu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean. Eta, horretarako, kontratua osorik edo zati batean egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira fakturarekin batera.

Udala prezioa ordaintzen berandutzen bada, kontratistak eskubidea izango du —hogeita hamar eguneko epea igaro ostean— berandutze-interesak eta kalte-ordaina jasotzeko, kobrantzen kostuengatik, hala ezartzen baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean, zeinak neurriak ezartzen baititu merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurka borrokatzeko.

Kontratistak udalaren aurrean duen kobrantza-eskubidea laga ahal izango du, zuzenbidearen arabera.

13.2.FAKTURAZIOA

Fakturak kontratuaren arduradunak emango ditu ontzat eta indarreko xedapenekin bat egingo dira. Berariaz honako hauek adieraziko dituzte: serieko zenbakia, egin den eguna, egindako lanen deskribapena, egin duenaren eta hartzailearen IFZa eta jasanarazitako BEZa.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Fakturak ezinbesteko eskakizunen bat ez badu, zuzentzeko eskatuko da, eta zuzendu arte ez da ordaintzeko epea zenbatzen hasiko.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatutakoaren arabera, faktura elektronikoa egin behar duten erakundeek fakturak Urdulizko Udalari formatu elektronikoan bidaliko dizkiote Udaleko Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz, honako datu hauek hartu behar dira kontuan fakturazioari dagokionez:

Entitatearen IFK	Entitatearen izena	Bulego kudeatzailearen kodea	Bulego kudeatzailearen izena	Unitate izapidegilearen kodea	Unitate izapidegilearen izena	Kontabilitate-bulegoaren kodea	Kontabilitate-bulegoaren izena
P4810300F	URDULIZKO UDALA	L01480890	URDULIZKO UDALA	L01480890	URDULIZKO UDALA	L01480890	URDULIZKO UDALA

14. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

14.1.LAGAPENA

Alderdiek kontratu honetatik etorritako eskubideak laga ahalko dituzte, SPKLren 214. artikuluan ezartzen diren eskakizun eta baldintzekin eta ezaugarrien taulak uzten badu.

Kontratu honetatik datozen eskubideak eta betebeharrak kontratistak hirugarren bati laga diezazkioke, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko erabakigarriak suertatu ez badira eta lagapenarekin merkatuan lehia eraginkortasunez mugatzen ez bada.

Ezingo da hirugarren bati lagatzea baimendu, kontratuan oinarrizko elementutzat hartzen diren kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen badira.

Kontratistek euren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, gutxienez, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Aldez aurretik eta berariaz kontratazio-organoak lagapena baimenduko du.
- Lagatzeko baimena emango da betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20 egina izango du. Baldintza hori ez da aplikatuko baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki, edo epaitegi eskudunari jakinarazi bazaio birfinantzaketa-akordio bat lortzeko negoziazioak hasi dituen konkurtsoa deklaratzeko, ala hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikitzeko, konkurtso-legerian aurreikusitako baldintzetan.

- "Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna eta kontratuaren egikaritze-fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea; gainera, behar bezala sailkatua egongo da, baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio. Azkenik, ez da kontratatzeko debeku-arrazoiren batean murgilduta egongo."

14.2.AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzar dezake prestazioa zati batean egitea agiriek xedatutakoaren arabera, ezaugarrien taulako Ñ atalean zehaztutakoarekin bat etorriz, prestazioa edo horren zati bat zuzenean lehenengoak gauzatu behar duenean izan ezik.

Azpikontratuak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Ezaugarrien taulako Ñ atalak hala aurrez ikusten badu, lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia, horrek suposatzen duen zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila, gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzak kontuan hartuta. Azpikontratuak eskaintzan izendatuekiko beste enpresaburu batzuekin egin nahi direnean edo eskaintzan aipatutakoekiko zati desberdinei dagozkienean, ez datoz eskaintzak adierazitakoarekin bat, beraz, jakinarazpenetik eta kontratatzeko debekurik ez dutela justifikatzen denetik hogei egun igaro arte ezingo dira egin, lehenago berariaz baimendu ez badira. Araubide bera aplikatuko da eskaintzan azpikontratistak bere lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

2. Nolanahi ere, kontratua esleitu ondoren, beranduenez egikaritzen hasten denean, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa. Hala, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia azalduko du, azpikontratistaren nortasunarekin, harremanetarako datuekin eta legezko ordezkariarekin edo ordezkariekin batera. Horrez gain, nahikoa justifikatuko du obra gauzatzeko gaitasuna, eskura dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak

nahiz esperientzia kontuan hartuta. Azkenik, kontratatzeko debekurik ez duela ziurtatuko da.

Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia gauzatzen ari den bitartean informazio horrek duen edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruzko informazio guztia.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistak gaitasuna azpikontratua egin bezain laster ziurta dezake, hori larrialdi-egoera bati erantzuteko beharrezkoa bada edo presazko neurriak hartu behar badira eta nahikoa justifikatzen bada.

3. Ezaugarrien taulako Ñ atalean zenbait zeregin kritiko azpikontratatzea debeka daitezke, eta zuzenean kontratista nagusiak egin beharko ditu. Zeregin kritikoak zehazteko kontratazio-espedientean justifikatu beharko dira.

4. Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dute erantzungo. Ezingo da Kode Zibilaren 1597 artikuluko zuzeneko ekintza erabili.

5. Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri emango die, lan-legediarekin bat. Halaber, enpresa azpikontratistei ezaugarrien taulako K atalean aurrez ikusitako egikaritze-baldintzak jakinaraziko dizkiete, eta nahitaez bete beharko dituzte.

6. Kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei hitzartutako prezioa ordainduko die zehazten diren epeetan eta baldintzetan. Epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da faktura aurkezten denetik. Onetsi edo ontzat emateko epea aurkezten denetik ez da hogeita hamar egun naturaletik gorakoa izango.

15. ZEHAPENAK

15.1.ZEHAPENAK APLIKATZEA

Kontratistak agiri honetan edo SPKLn ezarritako baldintzaren eta eskakizunen bat betetzen ez badu, Udalak hurrengo atalean aipatzen diren zehapenak jarri ahal izango dizkio,

arrazoitu duten kausa desberdinen arabera. Horretarako, arrazoitu beharko du, ez-betetzea dokumentuen bidez adieraziko du eta, gutxienez, 5 egun natural emango dizkio interesdunari entzuteko.

Jokabidea kontratuaren arau-haustetzat tipifikatu edo ez tipifikatzea kontuan hartu gabe, Udalak enpresari ordaindu behar dionetik kenduko dio eman ez duen prestazioaren zenbatekoa, eta kalteak eta/edo galerak gertatu badira, kalte-ordaina eskatuko dio.

15.2.ZEHA DAITEZKEEN HUTS-EGITEAK

Kontratuari begira, zeha daitekeen arau-haustetzat joko da kontratistaren ekintza edo ez-egite oro, baldin eta agiri honetan edo SPKLn zehaztutako eskakizunak urratzen badira.

Arau-hausterik dagoen zehazteko, baloratu beharko dira egin ez den prestazioaren garrantzia, arduragabekeriarik eman den, prestazioa behin eta berriz ez den egin, kontratu osoarekiko gorabeheraren garrantzia, etab. Beraz, zehapenak aplikatzeko orduan, gauzatutako prestazioen kalitatea kontuan hartuko da, eta kontratu osoan zehatzea ekarri duen ez-betetzearekiko proportzionalak izango dira. Balorazio horren ondorioz arau-haustea bidezkoa eta proportzionala denean bakarrik hasiko da zehapenak ezartzeko prozedura. Balorazioa egiteko azaldutako irizpideak hartuko dira kontuan: bidezkoa eta proportzionala izatea.

Kontratistak egindako arau-hauste oro garrantziaren, proportzionaltasunaren eta nahitasunaren arabera sailkatuko da honako moduan: arina, astuna edo oso astuna, ondorengo irizpide hauei jarraikiz:

Arau-hauste arina: "Arau-hauste arintzat joko dira kontratuaren funtzionamenduaren eta eraginkortasunaren kontra eragin arren; asmo txarrez egindako jarduketei erantzuten ez dietenean; pertsonak, animaliak edo gauzak arriskuan jartzen ez direnean; egindako lanen bizitza ekonomikoa murrizten ez denean; eta bide, parke, eta abarreko erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez dizkietenean. Besteak beste, honako hauek izango dira:"

- Lanetan hasierako eta ohiko eragiketen jardunbidea ez betetzea.
- Kontratuaren prestazioa hiru egun baino gutxiagoz atzeratzea edo etetea, betebeharrak arduragabekeriaz edo axolagabekeriaz betetzea.
- Oro har, arduragabekeria edo hutsegite barkagarria direla eta, puntualtasunik eza ala ez betetzea.
- Agiri honetan edo preskripzio teknikoetan zehaztutako edozein eskakizun ez betetzea, agiri honek larriagotzat jotzen ez badu.
- Herritarrei beharrezkoak ez diren eragozpenak sortzea.

Arau-hauste larria: Arau-hauste larritzat sailkatzen dira ikuskapenak edo eskatutako lanak ala kontratuko prestazioak eta eskakizunak urri egitearen ondoriozkoak, baldin eta gauzatutako lanen bizitza ekonomikoan modu negatiboan eragiten badute edo erabiltzaileei eragozpenak eta arriskuak sortzen badizkiote ala kontratatutako lanen udal-kontrol edo -ikuskapenari kalte larria eragiten badiote. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Kontratuaren prestazioa hiru egun edo hortik gora, baina hamabost egunetik behera atzeratu edo etetea, puntualtasuna behin eta berriz urratzea, etengabeko arduragabekeria edo axolagabekeria.
- Oro har, eskakizunak eta betekizunak larriki ez betetzea eta urtebetearen barruan hiru arau-hauste arin egitea.
- Kontratua dela eta, ezagutzen diren gaiak isilpean ez eramatea.
- Lanak gauzatzean Udalaren edo hirugarrenen ondasunetan sortutako kalteak ez konpontzea.
- Urte berean hiru ez-betetze arin egitea.
- Lanetan segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzea.
- Kontratatutako eragiketen bat ez egitea.
- Giza-baliabiderik edo bitarteko materialik ez izatea.
- Preskripzio teknikoen agirian baimenduta ez dagoen publizitatea jartzea.

Arau-hauste oso larria: Arau-hauste oso larritzat sailkatzen dira baldintzak modu garrantzitsuan aldatzen dituzten jarduketak edo kontratistaren asmo txarrez egindakoak. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Esleipen-irizpideak ez betetzea edo eskaintzan onetsitako konpromisoren bat ez betetzea.
- Udalari iruzur ekonomikoa egitea, eta, horretarako, errealitatearekin bat ez datozen fakturak aurkeztea edo beste edozein bitarteko erabiltzea, nahiz eta dolorik ez egon.
- Kontratuaren prestazioa hamabost egunez edo hortik gora atzeratu edo etetea ala kontratua abandonatzea.
- Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri metatu edo errepikatzea.
- Etekin gabezia nabarmena, kontratuaren prestazio okerra eta akastuna, bai kalitateari, bai kantitateari dagokionez.
- Kontratuak berezkoak dituen prestazioak edo kontratuaren arduradunak idatziz agindutako zereginak funtsik gabe egiteari ukatzea, betiere jarrera hori esleipendunari edo haren zuzendariei, arduradunei eta/edo langileei egotz badakie.

- Delituzko edozein jokabide, bereziki, bortxaketak eta lapurreta instalazioetan.
- Kontratutik eratorritako eskubideak eta betekizunak Udalaren baimenik gabe lagatzea.
- Lanbideko sekretuaren eskakizuna ez betetzea.
- Elementuak edo instalazioak apropos kaltetzen uzteko jarrera.
- Txostenak faltsutzea.
- Eskainitako egikaritze-epea edo kontratuaren xedea eta kontratuaren arduradunak eskatutakoak betetzeko giza baliabide eta bitarteko material nahikorik ez izatea.
- Kontratua abandonatzea.
- Ingurumenaren arloan agiri honetan ezartzen diren eskakizunak ez betetzea.
- Edozein ez-betetze larri errepikatzea.

KOLUSIO-JOKABIDEETAN PARTE HARTUZ GERO LIZITATZAILEEI ETA ENPRESETAKO ZUZENDARIEI JAR DAKIZKIEKEEN ZEHAPENAK ETA KONTRATATZEKO DEBEKUA

Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LDL) 1. artikuluak lizitatzaileen arteko kolusioa debekatzen du. Oso arau-hauste larritzat jotzen da, eta enpresari negozioen bolumen guztiaren %10era arteko edo aurreko bolumena zehaztea ezinezkoa denean, 10 milioi eurora arteko zehapena jar dakioke. Jokabide bera egotz dakieke kontrolatzen duten enpresei edo pertsonei. LDLren 61. artikulutik 63. artikulura.

LEA/AVCk kartel batean nahasitako enpresari zehapenaren zenbatekoa ken edo murritz diezaioke, LEA/AVCren aurrean errukitasun-eskaera egiten badu. Xede horrez, froga-elementuak aurkeztu beharko ditu zehapen-espedientea hasteko edo arakatze-jarduerak egiteko. LDLren 65. eta 66. artikuluak.

Era berean, legezko ordezkari bakoitzari edo zuzendaritza-organoak osatzen dituzten pertsonei 60.000 eurora arteko isuna jarri ahal izango zaie, erabakiak edo akordioan parte hartu badute.

Lehiaren faltsutzea Zigor Kodearen 262. artikuluan ere tipifikatuta dago. Artikulu horretan ezartzen denez, lehiaketetan eta enkanteetan prezioak aldatzen dituztenei urtebetetik hiru urte arteko espetxe-zigorra, hamabi hilabetetik hogeita lau hilabete arteko isuna eta enkante judizialetan lizitatzeko desgaikuntza berezia ezarri ahal izango zaie, bai eta administrazio publikoekin kontratatzeko desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik bost urte artekoa.

Lehia faltsutzeagatik zehatutako lizitatzaileak administrazio publikoekin kontratatzeko debekuetan eror daitezke (SPKLren 71. artikulutik 73. artikulura).

Lehia mugatzeagatiko jokabidearen ondorioz kaltetutakoek legitimazioa dute erantzukizun zibileko kalte-ordaina eskatzeko arau-hausleek sortu dizkieten kalte-galerak direla bide. LDLren 71. artikulutik 81. artikulura.

Zehapen horiei ezaugarrien taulako L atalean daudenak erantsi ahalko zaizkie.

15.3.ZEHAPENEN ZENBATEKOA

Kontratua egikaritzen hasteko atzeratzen den egun bakoitzeko edo etena dagoen egun bakoitzeko agiri honen 12.2 artikuluan aurrez ikusitako zehapena jarriko da, ezaugarrien taulako L atalean bestelakoa zehazten denean izan ezik.

Gainera, honako zehapen hauek jarriko dira:

- Arau-hauste arinak: Arau-hauste arin bakoitza kontratuaren esleipen-prezioaren % 1 eta % 3 bitarteko zenbatekoarekin zeha daiteke.
- Arau-hauste larriak: Arau-hauste larri bakoitzaren kasuan, kontratista kontratuaren esleipen-prezioaren % 3,01 eta % 5 bitarteko zenbatekoarekin zeha daiteke.
- Arau-hauste oso larriak: Arau-hauste oso astuna kontratuaren esleipen-prezioaren % 5,01 eta % 10 bitarteko zenbatekoarekin zeha daiteke.

Eskakizunak ez betetzeko ezingo dira ezinbesteko arrazoi edo arrazoi justifikatu modura alegatu honako hauek:

a) Eguraldi txarra, salbuespenak edo hondamenak ez badira.
b) Enpresa esleipendunaren barneko lanuzteak.
c) Langileen edo hirugarrenen lan-bajak edo oporraldiak.
Esleipendunak betetzen ez badu, kalteak ordaindu beharko ditu, hori guztia gertakariak ekar dezakeen erantzukizuna eskatzearen kalterik gabe.

Zehapenen zenbatekoak ordaintzeko ordainketetatik edo, bidezkoa bada, fidantzatik kenduko da.

Nahiz eta zehapenak jarri, arau-haustearen ondorioz sortu diren kalte-galerak direla eta, Udalarekiko balizko kalte-ordainaz ez da salbuetsiko.

16. KONTRATUA AZKENTZEA

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Orokorrean eta SPKLren 209. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua bete edo suntsiarazten denean azkenduko da.

16.1.KONTRATUA BETETZEA

Kontratistak kontratua bete duela joko da baldin eta kontratuko zerbitzu guztiak agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirietan ezarritakoaren arabera eman baditu, eta Udalak kexarik gabe ontzat jo baditu.

Zerbitzuak jasotzeko moduan ez badaude edo Udalak kexaren bat egin badu kontratistak zerbait ez betetzeagatik, berariaz jasota utzi beharko da, eta Udalak jarraibideak emango dizkio kontratistari ez-betetze hori edo ikusitako akatsak konpon ditzan. Hala eta guztiz ere, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik zerbitzuak ez badatoz bat kontratutakoarekin, udalak zerbitzu horiek atzera bota ahal izango ditu, eta zerbitzu horiek ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratu ahal izango da, zerbitzua edo prestazio desegokia ematen den egunetik aurrera.

16.2.EGINDAKO LANEN JABETZA

"Udalaren jabetzakoak izango dira bai kontratatutako prestazioak, bai egindako lanei dagozkien eskubide guztiak, jabetza industriala eta komertziala; eta, ondorioz, edozein unetan eskatu ahal izango du hura osatzen duten dokumentuak edo materialak entregatzea, aurrekari, datu edo prozedura guztiekin."

Jabetza industrial eta intelektualaren eskubideak babestutako produktuak garatu eta eskueran jartzeko produktuak xede dituzten kontratuetan, kontratistak eskubidea laga beharko dio Udalari, hala ezartzen baita plegu honen 12.1.e) klausulan.

Kontratistak euskarri informatikoan eman beharko dizkio Udalari lanak egiteko erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak.

Jabetza intelektualaren xede diren lanak espresuki eta esklusiboki Udalari laga zaizkiola ulertuko da, salbu-eta lehendik dauden eskubideen kasuan, non litekeena baita lagapena esklusiboa ez izatea.

16.3.BERME-ALDIA

Berme-epea, hala badagokio, ezaugarrien koadroko D.4) atalean ezarritakoa izango da, edo, bestela, esleipendunak eskainitakoa, salbu eta kontratuaren izaera edo berezko ezaugarriak direla-eta beharrezkoa ez bada. Hori behar bezala justifikatu beharko da kontratazio-espedientean, eta atal horretan berariaz adierazi beharko da.

Epe horren barruan, egindako lanetan hutsik edo akatsik badagoela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak horiek konpontzeko eskatu ahalko du.

Adierazitako berme-aldia igarota, udalak eragozpenik jarri ez badu, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango egindako prestazioagatik.

16.4.KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira agiri honetan eta SPKLren 211. eta 313. artikuluetan xedatutakoak, SPKLren 213. eta 313. artikuluetan aurrez ikusitako ondoreekin.

Kontratua esleipendunaren erruz suntsiarazten denean, behin betiko bermea konfiskatuko zaio, Udalari sortutako kalte-galerengatik konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen horretan kalte-ordaina gorabehera.

17. ESKUMENA ETA JURISDIKZIOA

17.1.KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUMENAK

Kontratazio-organoak kontratu hau interpretatu eta betetze aldera sortzen diren zalantzak ebazteko eskumena du. Era berean, aldatu ahal izango du, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoarekin bat etorriz, suntsiaraztea nahiz ondoreak zehaztea erabaki dezake, SPKLk aipatzen dituen mugen barruan eta horretan adierazitako baldintza eta ondoreen arabera.

Lege-aholkularitzak txostena egin ondoren, interpretazio, aldaketa eta suntsiaraztearen eskumenak erabiliz kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiak administrazio-bidea amaituko dute, eta berehala betearazleak izango dira.

17.2.JURISDIKZIOA

Agiri honen eta hura gauzatzean ematen diren ebazpenen aurka aukeran honako errekurtso hauek jarri ahal izango dira:

- **Aukerako berraztertzeko errekurtsoa**, hilabeteko epean, kontratazio-organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, baldin eta, zenbatekoa dela eta, errekurtso berezia jartzea ez badagokio.
- **Gora jotzeko errekurtsoa**, hilabeteko epean kontratazio-organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, kontratazio-mahaiak emandako ebazpenen aurka egiteko bada.
- Errekurtso berezia, hamabost egun balioduneko epean, kontratazio publikoaren arloan bidezkoa denean (ezaugarrien taulako O atalean aurrez ikusitakoarekin bat

etorriz), Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 50. artikuluaren babesean. Esleipenaren aurka egiten bada, egintza hori automatikoki etengo da.

- **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa**, bi hilabeteko epearen barruan, administrazio-bidea amaitutakoan. Epe hori aurka egindako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legeak xedatutakoaren arabera.

Alkatea



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

I. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

2. abizena: …….

Izena:…….

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatutako sozietatearen izena:

Ordezkatuaren IFK: ……

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

2. abizena: …….

Izena:…….

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatutako sozietatearen izena:

Ordezkatuaren IFK: ……..

*Eredua egokitu egin beharko da, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duen enpresetako bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: ……..

Erreferentzia-kodea:……..

ADIERAZTEN DUTE:

Berariaz hartzen dutela Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa, aipatu kontratuaren esleipendun suertatuz gero, honako partaidetza-ehuneko honetan:

Enpresaren izena	%

Elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakar izendatu dutela, eskubideak baliatzeko eta kontratuaren ziozko betebeharrak betetzeko botere askirekin, kontratua amaitzen den arte, honako hau:

Izen-abizenak .....

Lekua eta data:……..

Sozietatearen izena:	Izenpea:
Sozietatearen izena:	Izenpea:
Sozietatearen izena:	Izenpea:

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenaz jasotzen dira; tratamendu automatizatua izango dute, eta Urdulizko Udaleko Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek soilik udal kudeaketarako erabilii ahal izango dira, eta beste administrazio publikoei edo beste norbaiti laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa Lege Organikoan aurreikusitakoa betetzen bada. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez (HAZ).

Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Urduliz. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC).

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

II. ERANSKINA: FORMULA BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK PROPOSATZEKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

2. abizena: ……

Izena:……

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatutako sozietatearen izena:

Ordezkatuaren IFK: ……

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: ……

Erreferentzia-kodea:……

Aipatutako kontratazio-espedientearen gainean eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, hurrengo prezioak eta, hala badagokio, formulen bidez ebaluatu daitezkeen gainerako elementuen eskaintzak proposatzen ditu.

1.- KONTRATUAREN IRAUPENERAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA

	Zenbakitan adierazita
OINARRIA:	
BEZa:	
GUZTIRA:	

2.- LEHEN SOROSPENEKO MONITOREAK:

- Begirale bat lehen sorospenetan: ☐
- Lehen sorospenetako 2 monitore: ☐
- 3 monitore lehen sorospenetan ☐

Lekua eta data:……

Sozietatearen izena:	Izenpea:

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenaz jasotzen dira; tratamendu automatizatua izango dute, eta Urdulizko Udaleko Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek soilik udal kudeaketarako erabilii ahal izango dira, eta beste administrazio publikoei edo beste norbaiti laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa Lege Organikoan aurreikusitakoa betetzen bada. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez (HAZ).

Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Urduliz. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC).

III. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

2. abizena: …….

Izena:…….

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatutako sozietatearen izena:

Ordezkatuaren IFK: ……..

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: ……..

Erreferentzia-kodea:…….

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU bere erantzukizunpean:

A. Kontratua egiteko giza baliabide eta bitarteko materialak atxikiko direla, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian adierazten diren profilak eta zehaztasunak betez.

B. Badituela Administrazio Baldintzen Orriek xedatzen dituzten kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, zein tekniko eta profesionala, bai eta sailkapenak ere, hala badagokio.

C. Erantzukizun zibileko aseguru bat eratzeko konpromisoa hartzen du, bermearen gutxieneko muga 300.000 €-koa izanik.

D. Ondorengo helbide elektronikoa gaitzen duela, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz. Helbide horretan egingo dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.
……

E. Kontratuaren xedea gauzatzen duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen edo akordio kolektiboari buruzko adierazpena:

……

Aurreko adierazpenarekin lotuta, egoera hori agiri bidez egiaztatuko da kontratazio-organoan, azken horrek halakorik eskatzen badu.

Lekua eta data:……..

Sozietatearen izena:	Izenpea:

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenaz jasotzen dira; tratamendu automatizatua izango dute, eta Urdulizko Udaleko Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek soilik udal kudeaketarako erabilii ahal izango dira, eta beste administrazio publikoei edo beste norbaiti laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa Lege Organikoan aurreikusitakoa betetzen bada. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez (HAZ).

Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Urduliz. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC).

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfnoa. 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40